

Berrigara

Zaharren lekuan berriak

Etxebizitza babestuak egiten
hasi dira San Antonion



BERRIA GARAJEA

Erakusketa eta tailerra

Amillaga 49, Bergara.

43 76 22 43 / 24 43 617 081 189



Mondeo

berria

laster
harrituko
zaitu



OMU
ZERAMIKAK



**Zeramika
Arte
unibertsala**

Biltegia eta bulegoak: Meatzereka, 6 • Tel./Faxa: 943 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Ignacio Zuloaga, 4 • Tel.: 943 79 07 20 • ARRASATE

Urtebete egin dugu Ignacio Zuloagako erakustokian!



Bazkaltzera!

Xabier Azkarate / Langilea

Eguna mendian pasatu ondoren, giro onean, bazkaltzen hasi ginen zazpi lagun. Batzuek sopa; beste batzuek babarrunak; eta, bateren batek entsalada. Plater aldaketa egiteko orduan, hara non ikusten dudana entsalada eskatu duen lagunaren platerean arto mordoak pila-pila eginda. Zerbait esatearren, zera bota nion:

– Ez jak artoa gustatzen, ala?

– Bai, gustatzen jatak, baina transgenikoen istorio horrekin zeharo moskeatuta najak.

Ez nuen aukera pasatzen laga nahi eta saiatu nintzen eztabaida sortzen, ea zer pentsatzen zuten mahaikideek transgenikoei buruz. Eztabaida horretatik datoz lerro hauek. Transgenikoen gaia inportantea bezain misteriozua da. Inportantea, askotan agertzen delako komunikabideetan, mundu mailako bileretan. Baita mota guztietako foroetan ere; eta oso misteriozua, nahiz eta oso inportantea izan, gutxi esaten delako inguruan eta gorputzean daukan eraginari buruz. Badirudi esperimentu erraldoi baten aurre-

an gaudela, non probeta mundua den eta saguak gu geu. Kutsadurarekin gertatzen den antzera gertatzen da elikagai transgenikoekin. Jaki hauek jan eta ezin da ikusi, epe motzean behintzat, kalterik sortzen duten edo ez. Denborak esango du, kutsaduraz, dagoeneko, esaten ari den moduan.

“Kutsadurarekin gertatzen den antzera gertatzen da elikagai transgenikoekin. Jaki hauek jan eta ezin da ikusi, epe motzean behintzat, kalterik sortzen duten edo ez”

Daukadan informazio apurra, izutzeko modukoa da. Transgenikoekin nahastuta dauden enpresek oso esparru zabala hartzen dute merkatuan; gudarako arma biologikoetatik hasita, medikamentueta-raino. Gehienok daukagun jarrera, goian aipatutako bazkarian lagun batek adierazi zuen:

– Neri berdin jatak, total, hil, hil egin behar gaituk. Beitu itzazue kotxe istripuak bestela, edozein momentutan, danba, eta kajara.

Badaude jateko kontuekin obsesionatuta bizi direnak, gero eta gehiago: zerbait ahoan sartu baino lehen, goitik behera irakurtzen dituztenak etiketa guztiak, nondik datozen, eta abar.

Arazo honen aurrean ez du ematen erraza denik zerbait egitea. Egia da saiatzen garela ahalik eta ondoen elikatzen; baina, badago erabili dezakegun tresna bat, kontsumitzaile gisa daukagun indarra. Teoriaz merkatua eskaera asetzeko dago; orduan, eska ditzagun elikagai garbiak eta eurei buruzko informazio zehatza. Lurrak, gure gorputzak eta gure ondorengoek eskertuko digite.<

barruan



Agurne Barruso

Elhuyarreko teknikaria

“Euskara, enpresa barruan, harreman eta zerbitzu hizkuntza izatea nahi dugu”

8.



Nerea Lazpiur

Jarduneko administraria

“Ez dakitt denporia kalkulatzeko: gauza asko egin nahi eta ezin ailegatu”

15.



Jokin Etxaniz

Pilotaria

“Zaila izango da berriz ere Logroñon Titini irabaztea lau t'erdiko txapelketan”

24.

AGENDA ETA ZERBITZUAK



BEKAK

Portugal eta Norvegiar ikasteko.
Atzerriko Gaietarako Ministerioa.
2001/02 ikasturtean eta 2001eko udan. Lizentziadunak nahiz karrerako azken urteko ikasleak.
Epea: azaroak 30.

Eskozian, Austrian eta Belgikan.
Atzerriko Gaietarako Ministerioa.
2001/02 ikasturtean eta 2001eko udan. Lizentziadunak nahiz karrerako azken urteko ikasleak. Epea: abenduak 29.

IKASTAROA

Eskalada ikastaroa.
Urdaburu Mendizale Elkarte Txindoki eta Eginon, urriaren 28 eta 29an.

Zainketa aringarriak.
Zainketa Aringarrien Euskal Herriko Elkarte. Sanitarioentzako eta unibertsitate-ikasleentzako zainketa aringarri buruzko IX. ikastaroa.
Epea: Azaroak 3.

Hainbat arlotako ikastaroak.
Hizkuntzak, informatika, dantza, eskulanak...

SARIAK

Literatur-narrazioen VIII. Lehiaketa.
Donostia Kultura; Esmatu Emakume Taldea. 18 urtetik gorako emakumeak, lehenago sarituak izan ez diren argitaratu gabeko kontazuzunekin.
Gai librea; Euskaraz nahiz gaztelaniaz; Lanen luzera 5 orri baino luzeagoa eta 10 orri baino laburragoa izango da.
Epea: azaroak 6.

LAN-ESKAINTZAK

Atezaina.
Bergarako Udala. Eskola Ziurtagiria; 2 plaza, hauetako bat egun erdiko jarduna. Epea: azaroak 1.

Administraria.
Bergarako Udala. Goi batxilergo titulua, LH2 edo baliokidea; HE 3. Bergarako Udal Artxiborako administrari plaza bat. Epea: azaroak 6.

Animatzaile soziokulturala.
Tafallako Udala. Batxilergo titulua edo baliokidea. Aldi baterako kontratua. B1 gidabaimena. Lanaldi partziala.
Epea: azaroak 13.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpeke, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatoz Gazte Informazio Gunea.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak
Telefonoa: 943 77 91 57
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00
Larunbata: 09:30-13:30

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunea igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Kilika eñ ateren zerrallatik

Leihotik edo edonondik disimuluz begiratu.



Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirrek emandako informazioa

San Juan auzoan

Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
20 °C	12 °C	0,2 l/m ²
19 °C	11 °C	23,9 l/m ²
12 °C	11 °C	16,1 l/m ²
23 °C	11 °C	0,6 l/m ²
17 °C	13 °C	14,1 l/m ²
23 °C	14 °C	- l/m ²
24 °C	9 °C	0,2 l/m ²

Urriak 19, eguena
Urriak 20, eguakitza
Urriak 21, zapatua
Urriak 22, domeka
Urriak 23, astelehena
Urriak 24, martitzena
Urriak 25, eguaztena

Farmaziak

Eguakitza 27:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Zapatua 28:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Domeka 29:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Astelehena 30:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Martitzena 31:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Eguaztena 1:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Eguena 2:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Ogia

Domeka 29: Konde.

Eguaztena 1: Mizpildi.

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.
Lanegunak: 19:30.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:00.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:00.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

Basalgo

Domekak: 13:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

Labegarieta

Domekak: 11:00.

San Lorenzo

Zapatuak: 20:00.

Angiozar

Domekak: 11:00.
Eguakitza: 19:00.

Monja

Domekak: 18:00.

Zaharrak

Domekak: 18:00.
Zapatuak eta lanegunak: 20:00.

Mizpirualde

Domekak: 11:45.

Antzuola

Domekak: 09:00, 11:30.

Uzarraga

Domekak: 10:00.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 62
Bergarako udaltzaingoa	943 77 91 06
Antzuolako udaltzaingoa	943 76 62 46
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitalea	943 03 53 00
Mendaroko ospitalea	943 03 28 00
Zumarragako ospitalea	943 03 50 00
Arantzazuko osp. (Donostia)	943 00 70 00
Santiago ospit. (Gasteiz)	945 00 76 00
Txagorritxu osp. (Gasteiz)	945 00 70 00
Basurtoko ospitalea	94 400 60 00
Galdakaoko ospitalea	94 400 70 00
Gurutzetako ospitalea	94 600 60 00
Asepeyo	943 76 16 43
Pakea	943 76 13 49
Angiozarko medikua	943 78 90 27
Antzuolako medikua	943 76 62 23
Odol emaleak	943 76 16 24
Itxaropenaren telefonoa	943 45 80 05

GARRAIOAK

Euskotren	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 19 50
RENFE	943 28 35 99

UDALA

Bergarako udaletxea	943 77 91 00
Antzuolako udaletxea	943 76 62 46
Udal Artxiboa	943 77 91 32
Igerilekuak	943 76 20 51
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 62
Kirolegia	943 76 56 41
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 68

ABERIAK / ISTRIPUAK

Argindarra. Iberdrola	901 20 20 20
Grua. Ibai	608 67 68 21


BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 92
Erregistroa	943 76 13 15
Jardun	943 76 36 61
Idolaz	943 76 65 08
Jubilatuen Etxea. Bergara	943 76 21 40
Antzuolako jubilatuen elk.	943 76 62 71
Postetxea	943 76 26 85
Bedelkar	943 76 04 68
Akulu AEK	943 76 05 18
Udal euskaltegia	943 76 44 53
Bergarako notaritza	943 76 10 73

zorion agurrak




Leire Sanz
30ean 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Andoni Martin
27an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Nerea eta etxeokak.



Jacinto Cuadrado
28an 68 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Julen Molpeceres
27an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Olaia Cusi
27an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Agustina Zurro
2an 33 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mikel Azkarate
27an 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ion Azkarate
1ean 4 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak eta,
batez ere, Olatz.



Alazne Murgizu
30ean 6 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak, Miren
eta Marina.



Andoni Najera
27an 5 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta
Mikel.



Martin eta Lide
28an 40 urte ezkontuta.
Urte askotarako aitita eta amama!
Julen, Maitane eta Maddi.



Simon Telleria
28an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Lagunak.

*Hurrengo
alean,
azaroaren
3tik 9ra
bitartekoan
zorion agurrak
argitaratuko
ditugu.*

ESKER ONA

Nikanora Etxeberria Erostarbe

Joxe Alvarezen alarguna

Bergaran hil zen
2000ko urriaren 16an,
87 urte zituela.




*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Mari Cruz Narbaiza Azkarate-Askasua

Bergaran hil zen
2000ko urriaren 20an.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

hildakoak

BERGARA
Mari Cruz Narbaiza Azkarate-Askasua
Urriak 20

jaiotakoak

BERGARA
Maider Guridi Urrutia
Urriak 14
Aritz Unamuno Garai
Urriak 13
Izar Larrañaga Eskarza
Urriak 17
Josu Morras Gallastegi
Urriak 18
Markel Barrocal Santos
Urriak 20

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00,
11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00,
16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20
eta 21:00.

Geralekuak: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jate-txea.

Labegarieta/Olabarrenetik irteerak

07:20 , 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00,
10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

Geralekuak: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 15:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaieg.: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 12:05, 16:40, 17:15, 18:00, 19:35, 20:40. Zapatuak: 08:30, 12:05, 18:00, 19:35, 20:40. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 17:55, 18:35, 20:30, 22:05.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:20, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35*. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35*. (*Arrasateraino)

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 05:50, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaieg.: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:05, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 06:50, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 10:35, 13:35, 14:35, 15:35, 17:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaieg.: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik). Lanegunak: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 06:15, 07:15, 08:15, 12:30, 13:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaieg.: 18:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 19:00.

Bergara-Bilbo. Laneg.: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaieg.: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

ANTZERKIA

► **Pedro Reyes** umoristarekin **"El cielo es infinito pero un poco estrecho"** antzerkia gaur, eguakitza, 23:00etan, Elorrioko Ateneoan

MUSIKA

► **Dictators** eta **Holy Sheep** taldea gaur, eguakitza, 23:30ean, Jamen. Bihar, zapatua, **Hamlet** eta **Jauko Barik**, 22:00etan.

► **Donostiako Orfeoia** bihar, zapatua, 20:00etan San Pedron.

ERAKUSKETAK

► **Luis Etxeberriaren** olioak eta sorginak Nahikarin.

LEHIAKETAK

► **Antzuolako Udaletxean fresko-mural bat pintatzeko lehiaketa.** Epaimahaiak 500.000 pezetako sari bakarra emango du. Lanak entregatzeko epea abenduaren 11n bukatuko da. Argibideak Antzuolako Udaletxean edo 943 76 62 46 zenbakian.

IKASTAROAK

► **Informatika ikastaroak** 18 urtetik gorakoei zuzenduta, Miguel Altuna institutuak eta Udaleko Enplegu Sailak antolatuta.

ERAKUSKETA

Juan Manuel Bote

- Kultura Etxean
- Domekara arte

Joan zen eguakitzean Juan Manuel Boteren pintura erakusketa zabaldu zen Kultura Etxeko erakustokian. Jende dezente bildu zen inaugurazioan eta Botek kolore biziarekin egindako koadroekin gozatu ahal izan zuten. Juan Manuel Bote (25 urte) Arte Ederretan lizentziatua da eta hau dugu bere lehenbiziko bakarkako erakusketa. Kultura Etxeko paretetan 14 koadro zintzilikatu ditu; horietako hiru, formato handiko erretratuak. Horrez gain, hainbat tokitako paisaiak (Bergarakoak nagusiki) eta bodegoi bat aukeratu ditu jendaurrean erakusteko. Erretratuak izan ezik, gainerako lanak azken hilabeteotan egindakoak dira.

Juan Manuel Botek kontserbazio eta errestituzio espezialitatean egin zuen Leioako Arte Ederren Fakultatean eta gaur egun Madrilgo enpresa baterako egiten du lan. Maiatza bitartean Gironako kate-

dralean lanean izango da. Bere hitzetan, "oso gustura ari naiz errestituzio lanak egiten eta ahal dudanean margotzen jarraitzen dut. Aspalditik neukan erakusketa bat egiteko asmoa eta azkenengo hilabeteetako astebukaerak erakusketa gertatzeko aprobetxatu ditut. Gustura geratu naiz egindako lanarekin eta erakusketa honen bitartez jendeak nire lana ezagutzea nahi nuen". Esan bezala, kolore biziak dira bere koadroetako protagonistak: "kolore puruak, oso biziak erabiltzea gustatzen zait eta hainbat oliotan akrilikoa erabili dut oinarri modura". Bere estilo propioarekin herriko hainbat toki ezagunei ikutu berezia eman die Botek.

Erakusketa domekara arte izango da ikusgai. Zapata eta domekan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.



Juan Manuel Bote bere koadroetako baten ondoan.

tuta. Izen-ematea Udaletxean azaroaren 2ra arte zabalik.

► **Sevillana ikastaroa** Jamaretoan abendutik aurrera, eguenero, 16:30etik 20:00etara. Izen-ematea (3.500 pezeta hileko) Jamen bertan. 943 76 35 81.

► **Pintura ikastaroak:** teknika eta gai ezberdinen arteko esperientziak. Hainbat ordu-tegi aukeran. Argibide gehiago eta izen-ematea 943 76 44 17 edo 696 577 495 (Usoa) telefonoan. Bestalde, haurrentzako pintura eta marrazketa ikastaroak, 5-14 urte bitartekoak

zuzenduta, zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara. Argibideak 943 76 34 48 (Mayra) edo 696 577 945 (Usoa) zenbakietan.

► **"Emakumeak: izanak eta izateak feminismo eta sexologiari begiraturik"**

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimakerak

Urte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

IBARGYREN PENTSVAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62

jardunaldiak azaroaren 4an Eskoriatzan, Arrasateko Udaleko sexologia zerbitzuak antolatuta. 943 77 00 65.

► **Biolurrek** antolatuta, barazkigintza ekologikoa ikastaroa Elgoibarren. Plaza mugatuak. Argibideak 943 74 40 67 zerbakian.

DEIAK

► **San Joxepeko Kultur Hamabostaldia**ren amaiera ekitaldia bihar, zapatua, 12:30ean, Miguel Altuna institutuan. Ondoren, 14:30ean, herri bazkaria izango da Zabalotegiko pilotalekuan.

► **Beart elkarteak** proiektu artistiko edo obra pertsonala garatu nahi duten herritar guztiei elkartearen lokala (Bolu, 47) erabiltzeko gonbidapena luzatzen die. Eskaerak aurkezteko epea azaroaren 10ean bukatuko da. Argibideak Kultura Etxean edo 943 77 91 58 zerbakian.

► **Anelkar** Antzuolako Elkartasun Taldeak hirugarren munduarekiko elkartasun festa egingo du bihar, zapatua. Arratsaldean, 16:30ean, tortilla lehiaketa egingo da Frontoian; 18:00etan merienda eskainiko da eta 18:30ean "Duo Plaentxi"ren saioa izango da.

► **Hitzaldia: "Euskara, kirola eta euskal selekzioa"**. Partaideak Aitor Elkoro pilotaria, Jon Odriozola txirrin-

dularia eta Martxel Toledo Esait-eko kidea izango dira. Moderatzailea: Martin Garitano. Azaroaren 2an, Artatse elkarte, 19:30ean.

► **1947an jaiotakoek** 25.617 zerbakiarekin jokatu dute azaroaren 4ko loterian.

KINTADAK

► **1953an jaiotako**en afaria azaroaren 4an Txuringo jate-txean. Osintxura joateko urbanoa aterako da Frontoitik, 21:00etan. Ondoren, taldeko argakia aterako da eta afalostean dantzaldia izango da. Itzulera, 2:30ean egingo da. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) Txuringon bertan, Kiñu argazki dendan eta Eroski ondoko ONCEko postuan.

► **1972an jaiotako**en bazkaria azaroaren 11n. Izen-ematea Etxagin azaroaren 3ra arte.

► **1950ean jaiotako**en afaria azaroaren 18an, Txuringon. Izen-ematea (7.500 pezeta) Kutxan azaroaren 11ra arte zabalik. Osintxura joateko autobusa izango da 21:00etan, Frontoi ondoan.

► **1944an jaiotako**en afaria azaroaren 25ean Azpeitxi jate-txean, 21:00etan. Aurretik, 19:00etan, Santa Marinan meza izango da. Izen-ematea Sanchez ile apaindegian (943 76 23 70) edo 943 76 42 08 (Arantza Alberdi) telefonoan azaroaren 20a baino lehen.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

X-men

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

Esta abuela es un peligro

Eguaztena: 17:00, 19:30, 22:15.

The Million Dollar Hotel

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

X-men

Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

El exorcista

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena: 17:00, 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Plenilunio

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 22:00.
Domeka: 22:00.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena: 17:00, 19:30, 22:15.

The Kid

Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00, 19:30.

ELORRIO. Arriola

Leo

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.

Orfeo

Astelehena: 20:00.

ÓNATI. Santana

Evasion en la granja

Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Shaft

Eguaztena: 19:30, 22:30.
Eguena: 19:30.

X-MEN

Zuzendaria: Bryan Singer.

Aktoreak: Hugh Jackman, Patrick Stewart, Ian McKellen.
ADIN GUZTIAK

Charles Xavier irakaslea (Patrick Stewart) munduko telepatarik boteretsuena dugu eta bere ikasleek gizadiaren onerako mesedegarriak diren botereak dituzte. Hala ere, *Magneto* (Ian McKellen) maltzurak aurre egingo die...

ESTA ABUELA ES UN PELIGRO

Zuzendaria: Raja Gosnell.

Aktoreak: Martin Lawrence, Nia Long. ADIN GUZTIAK
Hiltzaile batek kartzelatik ihes egin ostean, FBIko *Turner* agenteak duen arrasto bakarria haren neska-laguna izango da. Umerezko film honetan egoera harrigarrienak ere gertatuko dira: neska gaztea bere amonaren etxera joango da eta *Turner* agenteak amonarena egingo du behar duen informazioa lortzeko...

THE MILLION DOLLAR HOTEL

Zuzendaria: Wim Wenders.

Aktoreak: Mel Gibson, Jeremy Davies, Mila Jovovich. ▲ 18 URTE
Bono U2 taldeko kantariak eta Nicholas Kleinek landutako hariari jarraituz, Wim Wenders zuzendariak errodatutako filmak Epaimahaiaren Saria jaso zuen Berlingo Zinema Jaialdian. Los Angeles hiriko hotel batean era guztietako pertsonaiak bilduko dira eta bertan gertatutako hilketa batek FBIren ikerketa bultzatuko du...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Garnish

Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

LONBIDE
OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



SANTOS
IRRATI-TB

TELEFONIA MUGIKORRA
• SUKALDEKO ALTZARIAK •
ARGIZTAPENA

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

Agurne Barruso bergararra Elhuyarreko teknikaria da. Enpresetan euskara planak garatzeko lanetan dihardu. Plana abian da hainbat enpresatan eta joan den asteburuan topaketak egin zituzten Aramaion euskara plan horietan murgilduta dauden bost lantegik.

G. Zergatik egin dituzue Aramaioko topaketak?

E. Inguruko enpresa asko euskara planetan sartuta dago. Plan horietan sartuta dauden langileetako askok erronka horretan bakarrik dauden sentsazioa dute: bakoitza bere enpresan murgilduta dago eta ez du besteen berririk. Isolatuta sentitzen dira. Horregatik, sentsazio hori kentzeko, planaren fase berean dauden bost edo sei enpresarekin topaketa batzuk egitea pentsatu genuen. Helburua esperientziak trukatzeko izan da eta, batez ere, langileek ikustea bakarrik ez daudela, beste enpresa batzuetan ere erronka berean ari direla.

G. Aukeratutako enpresa guztiak Elhuyarrekin lanean dihardutenak dira?

E. Bai. Gainera, plana orain dela bi urtetik hona garatzen dihardute. Arrasateko JMA, Beasaingo CAF, Ormaiztegi Irizar, Antzuolako Elay eta Gernikako Mayer enpresako ordezkariak egon ziren Aramaion. Bergarako TTT-koak ere etortzekoak ziren, baina ezin izan zuten.

G. Zertan oinarritzen da plana?

E. Bi ardatz ditu. Batek, euskaraz ez dakiten langileei euskara ikasteko bideak jartzen zaizkie enpresan bertan. Bestetik, euskaldunekin egiten den lana. Hauek, enpresa barruko lan arloka, taldeak osatzen di-

AGURNE BARRUSO
Elhuyarreko teknikaria

“Euskara, enpresako harreman eta zerbitzu hizkuntza izatea nahi dugu”



Barruso, irakasle aritu da euskara planetan, eta orain teknikaria da.

tuzte. Gero, enpresaren arabera, astean behin edo bi astean behin bildu egiten dira hizkuntza aldaketa nola egin planifikatzeko; hau da, gaztelaniatik euskararako urrats hori nola eman eurak zehazten dute. Beste era batera esateko, lantegian sortutako talde horiek dira aldaketaren eragileak. Eurak esaten dute noiz, nola... Be-

“Euskararen erronkan, isolatuta ikusten dute euren burua langile batzuek. Sentsazio hori kentzeko egin ditugu Aramaioko topaketak”

tiere, zuzendaritzaren baimenarekin.

G. Enpresa askotan diharduzue lanean...

E. Momentu honetan berrogeita hamar enpresa baino gehiagorekin ari gara aholkularitza lanetan. Hala ere, gehiagorekin izan ditugu harremanak.

Azken boladan, Kontseiluak egindako plan estrategikoa dela eta, enpresa gero eta gehiago animatzen dira euskara planetan sartzeko.

Gainera, lehen, euskaldun dentsitate handia zuten enpresak sartzeko ziren, baina gaur egun plan dezente ditugu euskaldun dentsitate txikiko enpresetan ere. Oso ezberdinak dira, baina abian daude.

G. Zer eskatzen dio euskara plan batek enpresari eta langileari?

E. Enpresaren diagnostikoa egin ostean, zuzendaritzarekin bildu eta helburuak finkatzen ditugu. Orduetik aurrera, enpresari helburu horiek onartzea eskatzen zaio, eta baita euren eta gure arteko bitartekari lanak egingo dituen pertsona bat ere, koordinatzailea, azken batean. Langileei euskara eskoletan edo hobetze taldeetan parte har dezatela eskatzen zaie.

G. Zein da planaren azken helburua?

E. Enpresaren arabera, baina, helburu estandarra da kanpo zein barne harremanetan euskararen normalizaziorako bideak jartzea, horrek dakarren guztiarekin; hau da, paisaia euskalduntzen joatea, agiri guztiak, bilerak, jarduerak... Azken batean, harreman eta zerbitzu hizkuntza bilakatzeko euskara. Dena dela, lehen esan bezala, ezin da helburu bera planteatu %70 euskalduna den enpresa batean eta %15 den beste batean.

Eraikitzen hasi dira jadanik etxebizitza babestuak San Antonion

Datorren hilean irekiko da etxe hauetako bat eskuratzeko izena emateko epea

Orotara 54 eraikiko dira, batzuk sozialak, orain egiten ari diren 18ak, esaterako, eta beste batzuk babes ofizialekoak. Hiru bloke egingo dira, eta bakoitza exekuzio fase bati dagokio. Eusko Jaurlaritzako eta Udaleko ordezkariak eguenean aurkeztu zuten sinatutako akordioa.


Akordioaren arabera, aprobetxamendu urbanistikoaren %100 Jaurlaritzaren esku geratu da, eta Udala etxebizitzetako bajuetako 370 m²ren jabe izango da.

Joan zen astean hasi ziren, lau hilabeteko atzerapenarekin etxebizitza babestuak eraikitzen. Atzertzeko arrazoia Uholak ibaia-
ren bideratze lanak izan dira.

Etxebizitzak San Antonio auzoko proiektuaren barruan daude, eta 18 etxebizitzako hiru bloke egingo dira hiru fasetan: batzuk sozialak, eta beste batzuk babes ofizialekoak.

Eraikitzen hasi diren 18 etxebizitza sozialak lehenengo fasearen barruan daude. Bigarren blokeko 18 etxebizitzak babes ofizialekoak izango dira, eta hirugarrenekoak beste horrenbeste.

Bigarren faseko etxebizitzak eraikitzen datorren urteko lehenengo hiruhilabetean hasiko dira. Oraindik ez dira lanak esleitu, baina Udalak eta Eusko Jaurlaritzak azaldutakoaren arabera azkar egin beharrekoa da. Izan ere, hirugarren



Etxebizitza sozialek 7,5 milioi inguru balioko dute, eta babes ofizialekoek 12,5 inguru.

blokea eraikitzeko, La Parra osteko etxeak bota behar dira, eta bertako bederatzi familia etxebizitza berrietako bigarren blokean kokatuko baitituzte.

ZAZPI ETA HAMABI MILIOI

Blokeek, garajea eta hiru solairu izango dituzte, eta

etxebizitzak 68 eta 90 metro kuadro artekoak izango dira. Prezioa ezberdina da soziala edo babes ofizialekoa izan: 80 metro kuadro inguruko etxebizitza sozial bategi 7 milioi eta erdi inguru balioko du. Babes ofizialekoak 12 milioi eta erdi inguru. Kasu bietan, garajea eta

trastetelekua barne. Erosleak 50 urterako eskuratuko du etxea. Izan ere, etxe babestuen arauen arabera, azalera eskubidea izango du eta ez da etxebizitzaren gaineko jabetza osoa.

IZENA EMATEKO EPEA

Egueneko aurkezpenarekin esandakoaren arabera, eraikitzen ari diren 18 etxebizitza hauetako bat eskuratzeko eskaerak jasotzen hilabete barru hasiko dira Etxebiden. Interesatuak, 902 424 444 telefonora deiz dezakete. Bete beharreko baldintzak honakoak dira: urtean 500.000 eta bi milioi pezeta arteko diru sarrera izatea, beste etxerik ez edukitzea, Bergaran erroldatuta egotea eta hamar urtetan Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza saileko laguntzarik jaso ez izana.



Ormazabal, Jaurlaritzako Etxebizitza sailburua, eta alkatea, eguenean.

Adinduen ardura duten familiendako laguntzak

Bergarako Udalak, Gizartekintzaren laguntzaz, Sendian izeneko programa jarri du abian. Pertsona nagusi dependienteak dituzten familiei zuzenduta dago.

Orain hiru urte sortu zuen Gizartekintzak Sendian programa. Ordutik hona, Gipuzkoako hainbat udal, zerbitzu hori eskaintzen dabiltza herritarrei. Bergarako Udalak aurten sinatu du Gizartekintzarekin hitzarmena, eta hasi da programaren berri zabaltzen herritarren artean.

Besteren beharra duten adineko pertsonak dituzten familiei laguntzeko programa berezia da. Helburua da, laguntza behar duten adineko pertsonak atenditzen dituzten familiei lan hori errazago egiten laguntzea.

Laguntza edo zerbitzu horiek hainbat dira, eta familia bakoitzaren beharretan



Udalak aurten jarri du martxan programa berezi hau.

ra egokitzen dira. Prestakuntza ikastaroak, laguntza taldeak, laguntza psikologikoa, astebukaeretan egotzan edo eguneko zentroan plazak izateko aukera, familiak atsedean har dezan egotzetan aldi baterako egonaldia, laguntza teknikoak eta diru laguntza konkretuak.

Zerbitzu hauetakoren baten onuradun izateko baldintza orokorra da, familian

laguntza behar duen adineko pertsona bat izatea. Adineko pertsona familiarekin berarekin edo bakarrik bizi daiteke; azken hau ez da eragozpen izango.

Zerbitzu konkretu bakoitzaren baldintzak udalean zehaztu beharko dituzte familiek.

Informazio gehiago Udaleko Gizarte Zerbitzuan, 943 77 91 65 telefonoan.

Gizon batek besoa galdu du lan istripuan

Joan zen eguenean, J. B. izeneko 58 urteko soraluzearrak lan istripua izan zuen Osintxuko Atxuriondo zerrerian. Antza, lanean ari zela estropozu egin eta zerra gainera erori zen martxan zegoela. Ondorioz besoa galdu du. Donostian dago ingresatuta arriskutik kanpo.

Kontzentrazioa San Martin plazan

Astelehenean, hogeita hamar lagun inguru kontzentratu ziren San Martin plazan, 12:00etan, ETaren azken atentatua salatzeke asmoz. Talde armatuak Maximo Casado kartzela funtzionarioa hil zuen, joan zen domekan, bere auto azpian jarritako bomba-pakete bidez.

Zerbitzu telematikoa Unedek ikasturte berrian

Unedek joan zen eguakitzean hasi zituen ikasturte berriko eskolak. Ikasturteari berrikuntza nagusi batekin ekingo dio: sarrera telematikoa. Horren bidez, ikasleek ordenagailuz jarraitu ahal izango dituzte informatika eta enpresa ikasketak, eta baita irakasleei kontsultak egin ere.

1.500 ikasle ingururekin hasi ziren eskolak joan zen eguakitzean. Hala ere, matrikula irekita dago abenduaren 3a arte.

Ikasketa-eskaintza zabalizango du: hamasei lizenziatura, hiru ingeniari-ti-



Azaroaren 17an egingo da ikasturtearen irekiera ofiziala.

ARTXIBOA

tulazio guztietako doktordutzak eta hogeita bost urtetik gorakoendako sarrera kurtsoa.

2000-2001 ikasturtean, hogeita bost urte beteko dituzte Unedek Bergaran. Urte horietan ikasketa eskaintza

zabaltzen eta ikasleen profila aldatzen joan dela azaldu du Juan Jose Alvarez Unedeko zuzendariak: "orain arte, batez ere pertsona helduak matrikulatu dira, baina poliki-poliki jende gaztea ere badator, bigarren karerra bat egitera, edota lanean hasi ostean, ikasketak egin nahi dituztenak".

Hizkuntza eskola ere jarriko da abian. Ingelesa, frantsesa, alemana, galegoa, katalana eta euskara eskolak eskainiko dira. Turismo eta Psikopedagogiako titulazioak ere eskainiko dira estreinakoz.

Komertzioetako kartoi eta papera biltzeko zerbitzua

Komertzioetako eta industria guneetako papera eta kartoiak atez ate biltzeko zerbitzua jarriko du abian Mankomunitateak. Bailarako merkatari elkarte eta udalekin batera hartu dira neurri hauek. Zerbitzuaren oinarriak oraindik guztiz zehaztu gabe dauden arren, biltzaile berak, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta eta Bergarako paper eta kartoiak jasoko du. Astean hirutan egingo dira bilketak seguru-erik. Biltzailea, aipatu herrietako batean hasi eta egun berean lau herrietan egingo du bilketa, bakoitzean ordu jakin batean.



Oraingo kontenedore kopurua ez da nahikoa merkatarien beharretarako.

Gabonetarako abian izango dela azaldu dute Mankomunitateko iturriek.

Zerbitzua merkatariak eskatu dute; izan ere, sortzen duten paper eta kartoi kopurua handia da, gaur egun dagoen edukiontzi kopururako.

1995. urteko urrian antzeko zerbitzua jarri zuen abian Mankomunitateak. Hala ere, 96ko abendura arte baino ez zuen iraun; izan ere, komertzioek sortutako paper eta kartoi kopurua ez omen zen oso handia eta kostua, aldiz, bai.

Zortzi edo hamar urteko kartzela Zubimendirentzat

Mikel Zubimendik zortzi edo hamar urteko kartzela zigorra jaso dezake Parisen epaitua izan ondoren. Horixe da, behintzat, fiskalak egindako eskaera. Hala eta guztiz ere, epaia jakiteko dago, nahiz eta noiz ezin den ziurtatu.

Orain dela bi aste, urriaren 9tik 11ra bitartean, epaitu zuten Mikel Zubimendi beste zortzi kiderekin batera. Bergarako gaztea 1999ko martxoaren 9an atxilotu zuten Parisen, eta ordutik Frantziako hiriburuko espetxe batean dago. Poliziak ETako kidea izatea leporatu zion.

Aita Zamora hil egin zen hilaren 20an

Jesus Maria Zamora Ituarte, "Aita Zamora", Palentzian hil zen, hilaren 20an, 75 urte zituela. "Aita Zamora" dominikoa urteetan Bergarako Aranzadi ikastolan aritu zen ingeles eskolak ematen. Bestalde, Seminarioko elizan ere mezak ematen zituen. Hileta elizkizunak Lekeition egin ziren martitzenean.

Francisco Javier Garaik zin egin zion astelehenean zinegotzi karguari

Francisco Javier Garaik zin egin zion zinegotzi karguari joan zen astelehenean egindako osoko bilkuran. Beraz, astelehenekoa bere lehenengo plenoa izan zen. Garai, elgetarra da eta bertan bizi da.



Garai, asteleheneko plenoan (eskuman), karguari zin egin ondoren.

Alvaro Espartzak maiatzaren 23an utzitako kargua hartu du zinegotzi berriak. Gogoratu, Espartzak dimititu egin zuela hainbat heriotza mehatxu jaso ondoren. Orduetik, izendatu gabe zeukaten sozialistek ordeztuko zuen pertsona.

Garai, bosgarren lekuan aurkeztu zen sozialisten ze-

rrendan 1999. urteko udal hauteskundeetan. Zerrendako bigarren, hirugarren eta laugarren postuan zeu-

den Javier Zendoia, Alfonso Zafra eta Maria Begoña Urbistondok uko egin zioten karguari.



Berrigara

427 zenbakia.
2000ko urriaren 27a.

Irizar jauregia, Barrenkalea 33,
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi,
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketa: Sergio Azkarate.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobereziabar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Usao Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate,
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara

Tirada: 5.400 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

GOITB DELA ETA, JOSE AGIRRERI ERANTZUNA

Urriaren 11n, "Bai, esan?" atalean argitaratu zenuen oharra erantzuteko asmoz nator. Bertan, lagun batzuek etxean GOITB ikusten duzuen bitartean, beste batzuek, ostera, ez dutela ikusten diozu. Egin dezagun historia pixka bat. Goiena proiektua Udalean, iaz, 1999ko azaroaren 10ean aurkeztu zen Euskara Batzordean. Bertako partaide guztiok bat gentozen zurekin proiektu erakargarria, hurbila, eta, beti ere, euskararen mesederako izango zela ikusten genuelako. Udalaren barruan eman beharreko hurrengo urratsa Gobernu Batzordea zen; bertan aurkeztu zen azaroaren 15ean. Alkatetzaren aldetik ez zen oso garbi ikusten: ondo aztertu beharreko

gaia zela, inguruko udalen asmoak ezagutu behar genituela... eta mahai gainean gelditu zen gaia. Denbora aurrera joan ahala, nik neuk galdetzen nuen Gobernuan zerbait berririk zegoen; erantzuna, antzerakoa beti: datorren astean, berehalaxe... Ekaina bukaeran uztail hasieran, nire burua aurkeztu nuen joan beharra zegoen tokira joateko, oporrak hartzen nituelako. Erantzuna ezezkoa izan zen, ezin zela esan non zegoen arazoa, konpontzen zenean jakingo nuela. Esan beharra daukat, une horretan, oraindik, Euskara batzordeburua nintzela, gaur egun ez banaiz ere, alkateak dekretuz horrela erabakita uztailaren 21ean. Eta gauzak horrela, gaur arte. Jakin ezazu ere Elgeta eta Antzuolak onartua dutela proiektua eta Bergarak aurrera egiten ez

duenez ezin dutela ikusi. Beraz, kontuak eskatzekoan, alkateari eskatu beharko dizkiozu, bere esku dagoelako, eta ez Udalaren esku, berak horrela aitortuta.



Bitartean, Goiena proiektuak aurrera egin du euskara taldeen eskutik. Martxoaren 31n kooperatiba sortu zen eta maiatzaren 22an abiatu zen telebista Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Aramaion. Hemen aurrera-biderik ez zegoenez, Jardun eta Zaiazkori esker Pazkue-tatik ikus daiteke etxe batzuetan, nirean, behintzat, petral.

Ea denon artean, zurekin eta zu bezalako herritarrekin, Goiena proiektuak aurrera egitea lortzen dugun.

Jolanda Juaristi
EHko zinegotzia
Euskara Batzordean

tira biraka alex ugalde

Begira, laztana: gure arteko maitasuna bezala, hazi txiki batetik polit eta indartsu hazi da lorea.



atrebentzia ezpada

Zer pentsatzen jatzu ESOko 1. eta 2. mailakoak atsedean aldian eskolatik kanpo ez urtetzeko kaleratu dan legia?



Naiara Ignacio

Ni bigarren mailan nabil, eta bigarrenekuok ezin dogu urten. Ez jat ondo pentsatzen. Gaiñera asko aspertzen gara.



Oihana Hernandez

Ni oiñ hirugarren mailan nago eta urten neike. Baina, bigarrenian nenguanian ezin nitzan urten eta ez jaten gustatzen.



Raquel Blanco

Hirugarrenian nago eta urten neike. Oiñ bokadillua erostera-ta juten gara, baina iaz ezin nitzan urten eta aspertu eitten nitzan.



Patricia Murillo

Errepikatzaillia naiz eta bigarren mailan nago. Edadez urtezia tokatzen jat baina ezin dot. Eskola barruan egoten gara berriketan.



Josu Gantxegi

Gaizki. Errekreo orduan, barruan aspertu egitten gara. Bokadillua erostera ezin gara jun. Eta goizian erosteko goizegi jaiki bihar da.



Iñaki Olaetxea

Gaizki pentsatzen jat. Eta beti berdiña egitten dogu: futbolian, saskibaloian... Gaiñera ez dozkue esaten zegaittik ezin dogun urten.

bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

APARKALEKUETARAKO SARRERA ZURRADERON

Jose Luis Gallastegiren deia jaso genuen eguazten eguerdian. Ur zikinak jasoko dituen kolektorea sartzeko lanak zirela eta, udaberri aldera, Ibargarai kalea hiru hilabete inguru itxita egon zela dio Jose Luisek. Orduetik gauzak normalizatuz joan omen dira, baina Gallastegiren arabera, Zurradero eta Ibargarai kaleen arteko aparkalekuetako sarrera ondoan, pasealeku zati bat baldosa barik eta harriz beteta geratu da. Bere ustez, umeak harrika ibiltzeko eta edozein pertsona jausteko dagoen arriskua nabaria da, eta lehen Udalak obra egiteko baimena eman bazion Diputazioari, orain pasealeku zati hori konpontzeko eskatu diezaiola eskatu nahi du, lehen zegoen bezala geratu dadin.

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29

PISZINETAKO
TABERNA

Bokadiloak
Pintxoak
Kazuelitak

Boni Laskurain z/g
Tf. 943 76 53 55



Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8

Tf.: 943 76 27 70

BERGARA

Kizkur

Ileapaindegia
Estetika
Solariuma



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

Urrezko ezteiak

Sandalio Retolaza eta Maria Mendikute senar-emazteek urrezko ezteiak ospatu zituzten zapatuan. Maria eta Sandalio **1950eko urriaren 18an** ezkondu ziren **Elgetan** eta zapatuan familiakoekin batera ospatu zuten hain egun berezia. **Agustin Lazpiurrek** lagatako **antzinako auto dotorean** joan ziren **Arantzazura** eta bertan meza entzun ondoren, bazkaria izan zuten Txopekua jatetxean. 40 lagun inguru bildu ziren. Zorionak!



Kartzela, gaztetxoentzat zabalik

Hamaika urtetik gorakoei zuzenduta, **Jardun** elkarteak Kartzelan ekitaldiak antolatzen ditu zapatu eta domeketan, 16:00etatik 20:00etara. Bertara hurbiltzen direnek **jolasak, irteerak** eta beste-lako ekitaldiak egiteko aukera izango dute kurtso bukaera bitartean. Bihar, zapatua, eskulanak egiteko hostoen bila joango dira **San Martzialera**, astebukaeretan Kartzelan biltzen diren gaztetxoak. Begirale lanetan **Amaia Zabaleta, Ane Miren Zabala, Itxaro Arantzabal, Nuria Barrero, Saioa Ziarsolo eta Eider Arantzabal** ari dira aurtan. Karneta ateratzeko (3.400 pezeta urteko kuota) interesa dutenek Jardun elkartera jo dezakete. Astebukaeran primeran pasatzeko aukera ezin hobea...

Globalizazioa aztergai

San Joxepeko Kultur Hamabostaldiaren barruan, **Manuel Cendoya Miramon Parke Teknologikoko zuzendariak** "El progreso tecnologico, agente de la globalizacion" izenburuko hitzaldia eman zuen astelehenean **Miguel Altuna** aretoan. Cendoyak globalizazioaren nondik norakoak aztertu zituen eta jende asko izan zen Miguel Altunako aretoan. Kultur Hamabostaldiari bihar, zapatua, emango zaio amaiera. Eguerdian Miguel Altunan izango den ekitaldiaren ostean, herri bazkaria izango da Zabalotegiko pilotalekuan. Era berean, gaur, eguakitza, kantu emanaldia izango da, 19:00etan, Novedadesen.



Artista gaztetxoeren erakusketa

Bedelkarrek antolatuta, zapatu goizean margo erakusketa egin zen San Martin Plazan. Bertan **Mari Paz Alustiza, Edurne Eraña, Marino Gonzalez, Uosa Mendikute eta Juanjo Altunaren** ikasle gaztetxoek erakutsi zituzten euren lanak. Eguraldi euritsuaren erruz, lanak Udaletxeko arkupetan jarri ziren eta bertara joandakoek artista gazteen lana ezagutzeko aukera izan zuten. Zapatuko erakusketa ikusita, argi dago artisten harrobi bikaina datorrela...

Nereak 32 urte dauzka eta orain dala bi hasi zan Jardunen administraziñuan lanian. Gero, kultur dinamizatzaile moduan ibilli da, eta, orain, berriz hasi da administrari lanetan. Nereak urtebeteko semetxua dauka, Kepa.

Jardunen lan egittiaren alderik onena?

Jende asko ezagutzen dozu; etengabe jendiarekin harremanetan zare.

Eta txarrena?

Orduz kanpo lan asko egin bihar izatia, eta jendiaren kolaboraziñua lortzia.

Diru kontuetan murgilduko zarenez... nahikua diru eduki ezkeru, zer egingo ziñuke?

Bizitzako komodidade guztiak lortu, eta, gero, ingurukuei lagundu.

Aldatzekotan, zer izan nahi ziñuke?

Brikolajia eta eskulanak asko gustatzen jat; arotz moduan-edo lan egingo nuke.

Ekitaldi ugari antolatu dittuzu: Kultur Errotako ekitaldirik gustokuena?

Mikel Urdangarinen kontzertua.

Zer musika mota dozu gustokuen?

Danetik gustatzen jat.

Musika talde edo abeslari bat?

Bob Marley izan da beti nere idolua.

Irakurtzeko ohiturarik badaukazu?

Gutxi; batez be oporretan irakurtzen dot.

Irakurri dozun azkenengo liburua?

Ion Arretxeren "Oroituz", bidaia bati buruzko liburua.

Telebista saio bat?

Bertatik Bertara eta TVE-2ko "Saber y ganar" lehiaketia.

Aurkezle bat?

Andoni Aizpuru bera oso aurkezle ona pentsatzen jat.

Nerea Lazpiur

Egunkarixan zer da irakurtzen dozun lehenengua?

Danari emoten jat errepasso bat, titularrak irakurrizaz.

Horoskopua irakurtzen dozu?

Ez; gaztetxotan irakurtzen neban, baiña orain ja ez.

Beti egin nahi izan dozun zerbait, eta oraindik egin ez dozuna?

Kanpora jutia hizkuntzak ikastera, eta, gainera, ezin izango dot egin ja.

Zure defektu bat?

Ez dakitt denporia kalkulatzan; gauza asko egittia nahi izaten dot eta ezin aillegauta ibiltzen naiz.

Eta bertute bat?

Hori ja ez dotzut esango, ez jat neri tokatzen hori esatia.

Astebururako plan ideal bat?

Isabara jun eta mendixan ibillaldi batzuk egiñaz pasatzia asteburua.

Kirolzalia zara?

Bai, oso.

Zer gustatzen jatzu praktikatzeko?

Batez be, aerobika eta bizikletan ibiltzia.

Eta ikusteko?

Igeriketa eta atletismua.

Eta bukatzeko, amets bat?

Urte askuan eta ondo bizi izatia.



ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12


REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

Sendabelarrak Dietetika



- Prebentzio neurriak osasunari begira.
- Elikagai biologikoak : barazkiak, frutak, esnea, lekariak...
- Kontsultak
- Sendagile naturista: zirkulazioa, erreuma, kolesterola...
- Pisuaren kontrol pertsonalizatua: koipe eta likidoen neurketarekin.
- Masajista

Irala z/g. 943 76 30 08

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 666 517 295

BERGARA

UDALA AYUNTAMIENTO		ERAKUNDEEMISORA	ERREF./REF.	URTEA/AÑO. EPEA/PER.
BERGARA				2.000 02
NAN-IFK/DNI-CIF:		ERREZIBU ZKA./NUM. RECIBO		
ZERGA/CONCEPTO: AGUA-URA		3.337		
EPEA/PERIODO: 01042000-300000				
L E K U A --				
AURREKO IRAKURK.=	2661	*1.KO-	40x 83,0=	3320 *KONT.MANT.= 270
EGUNGO IRAKURK.=	2661	*GUZ.-	40 =	3320 *HARTU.MANT.= 95
ALDEA =				*ESTOLDERIA= 2080
FAKTURAKO KONT.S=	40			*URA 2= 3320
				BEZ 16 (KA) = 58
				BEZ 7 (UR) = 232
		KONTA/CUOTA 6.055		
AMAIA GOIENETXEA		KUTXA-BANKOA	SURURTSALA	K.KTE.ZKA.
RAMON MARIA LILI 78		CAJA-BAZKO	SUCURSAL	NUM. CTA.CTE
BERGARA				
BORONDATEZKO EPEA (ERREKARGURIA) BEZ		KOSTAK COSTAS		ORD.GUZTIRA TOTAL A INGRESAR
PLAZO DE VOLUNTARIA (SIN RECARGO)				6.055
2.000-07-24 TIK 2.000-10-02 RA				36,39
EUROS (1 EURO = 166,386 PTS)				

2001eko ordenantza fiskala

UDALA AYUNTAMIENTO		ERAKUNDEEMISORA	ERREF./REF.	URTEA/AÑO. EPEA/PER.
BERGARA				2.000 02
NAN-IFK/DNI-CIF: P20079003		ERREZIBU ZKA./NUM. RECIBO		
ZERGA/CONCEPTO: AGUA-URA		3.337 -		
EPEA/PERIODO: 01042000-300000				
L E K U A --				
AURREKO IRAKURK.=	2661	*GUZ.-	40 =	3320 *KONT.MANT.= 270
EGUNGO IRAKURK.=	2661			*HARTU.MANT.= 95
ALDEA =				*ESTOLDERIA= 2080
FAKTURAKO KONT.S=	40			*URA 2= 3320
				BEZ 16 (KA) = 58
				BEZ 7 (UR) = 232
		KONTA/CUOTA 6.055		
AMAIA GOIENETXEA		KUTXA-BANKOA	SURURTSALA	K.KTE.ZKA.
RAMON MARIA LILI 78		CAJA-BAZKO	SUCURSAL	NUM. CTA.CTE
BERGARA				
BORONDATEZKO EPEA (ERREKARGURIA) BEZ		KOSTAK COSTAS		ORD.GUZTIRA TOTAL A INGRESAR
PLAZO DE VOLUNTARIA (SIN RECARGO)				6.055
2.000-07-24 TIK 2.000-10-02 RA				36,39
EUROS (1 EURO = 166,386 PTS)				

Kanposantuko tasetan eman da igoerarik handiena, %10, eta ibilgailuen sailkapen fiskala aldatu egin da 2001 urtera begira

Joan zen astelehenean onartu zuen Udalbatzak datorren urterako ordenantza fiskala, EAJ, EA eta EHren aldeko botoekin. PSOEko zinegotzia, Francisco Javier Garai, astelehenean bertan kargua hartu zuena, abstenitu egin zen. Aldaketarik nabarmenenak ibilgailuetan gertatu dira, turismoen orain arteko sailkapena birmoldatu baita; igoerarik nabarmenena, berriz, kanposantuko tasetan.

Datorren urteko ordenantza fiskalaren tasak, zergak eta prezio publikoak ezartzerako orduan, eta beraien igoera erabakitzerako orduan, KPI ren (Kontsumo Prezioen Indizea) urtearteko igoera kontuan hartu da. Hau da, iazko irailetik aurtengo iralera bitartean Kontsumo Prezioen Indizeak izan duen igoera, %3,8koa, hain zuzen ere, hartu da erreferentzia gisa. Hala ere, ez zaie Udalaren zerbitzu eta tarifa guztiei aplikatuko igoera hau.

Hainbat zergari, Ondasun Higiezi- nen gaineko zergari kasu, 2000ko KPI- ren igoera aplikatuko zaio. Datu hau otsailean jakingo denez, ordura arte itxarongo du Udalak. Ekonomi jardue- ren gaineko zergari dagokionez, hala ere, urtariletik kobratzen hasi behar izaten denez, urteartekoa aplikatuko zaio, %3,8, beraz.

ZERBITZU DEFIZITARIOETAN IGOERA HANDIAGOAK

Kanposantuko zerbitzua aspalditik izan da defizitarioa. Izan ere, Udalak jasotzen dituen tasekin ez du erdia ere fi-

nantzatzen. Hori dela eta, iaz %5 igo ondoren, aurtengoan %10 garestitzea erabaki da. Alderdi politiko guztiek onartu zuten erabaki hau, azken batean, ez baitio zuzenean herritarrari eragiten, aseguru etxeei baizik.

Mizpirualde egoitzako tasak ere, batez beste, %4 garestitu dira, arrazoi beragatik. Kasu honetan, gainera, aldaketa bat gertatu da: zerbitzu beragatik, tarifa ezberdinak ordainduko dituzte egoitzan aurtengo urte bukaera baino lehen sartu direnek eta datorren urtetik aurrera sartzen direnek. Lehenengo kasuan daudenek bigarrenekoek baino



Kanposantuko zerbitzua defizitariora da. ARTXIBOA

gutxiago ordaindu beharko dute. Beste bereizketa bat ere egiten da: 1994a baino lehen eta ondoren sartu direnen artekoa, hain zuzen ere. Kasu honetan ere, antzinatasunak residentearen alde egiten du, gutxiago ordaintzen jarraituko baitu.

Mizpirualdeko tasen batez besteko igoera, beraz, lehen esan bezala, %4koa da. Baina, hau horrela erabaki baldin bada, egoitzako arduradunek hala eskatuta izan da, ez da Udaleko kontuhartzaitzaren proposamena izan.

IBILGAILUEN ZERGAN, ALDAKETAK

Ibilgailu guztiak kontuan hartuta, batez beste %3,8 garestitu du Udalak hauen gaineko zerga. Hala ere, turismoen kasuan, aldaketa nabarmenak izan diren arren, oro har, Udalak ez du iaz baino diru gehiago jasoko zerga hauetatik. Izan ere, turismoen sailkapena zaharki-

tuta geratzen zela eta, orain arte 4 taldetan sailkatzen baziren, datorren urte-tik aurrera sei kategoriatan banatuko dira turismoak. Horrek dakarren ondorio nagusia zera da: batzuek lehen baino gutxiago ordaindu beharko duten bitartean, beste batzuei gehiago ordaintzea tokatuko zaie. Adibidez, orain arte 8 zaldi baino gutxiagoko autoek 3.215 pezeta ordaindu izan dute, eta 8tik 12ra bitartekoek, berriz, 8.675 pezeta. 2001etik aurrera, 9 zaldi bitartekoek 4.880 pezeta ordaindu beharko dute eta 9tik 12ra bitartekoek 9.755. Horrek esan nahi du, 8-9 zaldi bitarteko turismoa dutenak irabazten aterako direla, askoz gutxiago ordaindu beharko dutelako; baina, 9 eta 12 bitartekoek eta 8 zaldi baino gutxiagokoek iaz baino zerbait gehiago ordaindu beharko dute.

Ibilgailuei dagokienez, aipatzekoa da honako beste erabaki hau ere: gutxienez 25 urte dituzten ibilgailuek ez dute udal zergarik ordaindu behar izango.

ZABORRA ETA URA

Zaborra bildu eta deuseztatzeagatik ere hiruhilabetero ordaindu behar izaten dugu tasa bat herritarrok. Kasu honetan ere, aipatzen goazen beste kasu batzutan bezala, %3,8 gehiago kobratuko digu Udalak, Mankomunitateak proposatutakoari jarraiki. Baserritarrek ere edozein etxebizitza partikularretakoek ordaintzen duten prezio bera izango dute, hiruhilabetero 1.635 pezeta, hain zuzen ere; eta, baita bost bazkide baino gutxiagoko elkarteek ere.

Uraren erreziboari dagokionez, urzerbitzuaren beraren prezioa ez da aldatu, eta ezta kontadorearen manteni-

Uraren eta zaborraren erreziboa

	2000	Igoera	2001
Mantenimendua	365	%0	365
Estolderia	1.040	%3,85	1.080
Ura	3.320	%0	3.320
BEZ	290	%0	290
Zaborra	1.575	%3,8	1.635
Guztira	6.590	%1,52	6.690

Datuak: Pezetak hiru hilabetero

mentuari dagokion zerga ere. Hala ere, estolderiari dagokiona %3,85 igo da, 1.040tik 1.080ra.

BESTE PREZIO BATZUK

Merkatuko postuen tarifak ere %3,8 igo dira. Horrela, postu finakoak dituztenek hiruhilero 1.270 pezetako tarifa ordaindu beharko diote Udalari metro karratu bakoitzeko. Baserritarrek, berriz, 1.365 pezeta metro lineal bakoitzeko. Irekizte baimenen emakidak eta hirigintza baimenen emakidak tramitatzeko tarifek ere %3,8ko igoera jasan dute. Hau da, komertzio bat irekitzerakoan egin beharreko tramitazio guztiak, eraikin bat herrizterakoan eta antzerakoetan. Taxien eta autoeskoletako ibilgailuen baimenak ere proportzio berean igoko dira 2001.urtean.

KIROL GUNEETAN ERE IZANGO DA IGOERARIK

Kirol guneetako prezioen inguruan Kirol Zerbitzuek egin zuen proposamena. Hala, zerbitzu hauetan ere Kontsumo Prezioen Indizearen igoera aplikatu da. Beraz, honela geratu dira prezioak datorren urtera begira: frontoia ordubeterako alokatzeak 1.000 pezeta kostako da. Kiroldegiko kantxa osoaren alokairuak, berriz, 3.600 pezeta balioko du. Igerilekuei dagokienez, 18 urtetik beharokoek eta langabetu eta ikasleek 10.050 pezetako tarifa indibiduala ordaindu beharko dute. Erretiratuei eta elbarrituei, soldataren arabera (gutxieneko soldata baino gutxiago edo gehiago kobratzen dutenaren arabera), 4.350 eta 9.850 pezetako tarifa finkatu zaie.<

2000. URTEA

8 zaldi fiskal baino gutxiago	3.215 pta.
8-12 zaldi fiskal	8.675 pta.
12-16 zaldi fiskal	18.315 pta.
16 zaldi fiskal baino gehiago	22.810 pta.



Turismoen gaineko zerga

2001. URTEA

9 zaldi fiskal baino gutxiago	4.880 pta.
9-12 zaldi fiskal	9.755 pta.
12-14 zaldi fiskal	16.260 pta.
14-16 zaldi fiskal	22.765 pta.
16-20 zaldi fiskal	29.270 pta.
20 zaldi fiskal baino gehiago	35.770 pta.

adituen esanetan

C meningitisa

Osakidetzak, txertoen egutegian, C motako meningitisaren kontrako txertoa sartu du. Txerto berri bat da, injektatzekoa, eta bi hilabate eta sei urte bitarteko haur guztiei zuzenduta dago kanpaina. Adinaren arabera, bat, bi edo hiru dosi hartu behar dira. Urtebete baino gehiago dutenek dosi bat hartzarekin nahikoa izaten dute. Jaioberriek, aldiz, hiru dosi behar izaten dituzte.

Bergaran, joan zen astean ekin genion C meningitisaren kontrako kanpainari eta informazioa zabaldu ondoren, gurasoen baimena ezinbestekoa da haurrek txertoa hartu dezaten. 1994an eta 1995ean jaiotakoei euren ikastetxeetan bertan jarriko zaie txertoa eta 1996tik 2000. urtera bitartean jaiotakoei osasun zentroetan, aldizkako kontrolak egiterakoan edo aurretik pediatriako erizainari txanda eskatuz. Antzuolan, berriz, 1998tik 2000ra jaiotakoentzat, txanda eskatuz, osasun zentroan egingo da kanpaina eta 1994tik 1997ra jaiotakoei,



ANA BEROIZ

Erizaina

“Meningitisak ondorio larriak izan ditzake haurtzaroen. C meningitisaren txertoa hartuz prebenitu daiteke gaur egun”

eskola orduetan, osasun zentroetan txertoa hartzeko aukera eman-go zaie.

Meningitisa “meningokoko” izeneko bakteriak sortzen du eta ondorio larriak izan ditzake, batez ere haurtzaroen. Meningitis kasuen %90 B eta C motakoak dira, biak ere antzeko eraginarekin. B meningitisaren kontrako txertorik ez dago momentuz, baina C meningitisa txertoa hartuz prebenitu daiteke. Euskal Herria zona endemikoa dugu, hau da, C meningitis kasuak agertzeko arriskua da-

go eta hori dela eta jarri da kanpaina abian. Behin txertoa hartuz gero, bizitza guztirako C meningitisaren kontra inunizatzten da haurra.

Bestalde, txertoak ez du kontraindikaziorik. Zenbaitetan, injekzioa jasotako tokia gorritu edo handitu daiteke, baina egun gutxi barru desagertu egiten da. Kanpainak harrera ezinhobea izan du oraingoz eta jendeari gogoratu behar zaio gaitza prebenitzeko modu bakarria txertoa dela.



1994an eta 1995ean jaiotakoei euren ikastetxeetan bertan jarriko zaie txertoa.

bergarako errotak



LASPIUR-BOLU

*M*artinez de Isastik 1625ean aipatzen du Lazpur Antzuolako urubetxe bat dela.

1890eko zentso ofizialean agertzen denez, Lazpiurko errotan ondorengoak bizi dira: Antonio Alberdi Iturbe, 45 urtekoa, eta Jose Alberdi Iturbe 67koa, errotariak biak eta irakurtzen eta idazten ez dakitenak.

1895ean Jose Alberdi da bertako errotaria.

1904ko urriko eta azaroko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialetan Lazpiur Mayor izenez agertzen da.

1906ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, berriz, hauxe dator:

“Gregorio Fernandez y Sobrino elkarteak ondorengo erreketako.ur aprobetxamenduaren kontzesioa duela: ‘Polpol ó Sarriola, Garalocua, Munay, Chimillo y Eguiaco ó Auzola’. Halaber, adierazten da 231 m-ko ur-jauzia duela eta, erosit, Lazpiur-bekoa errotaren jabe dela eta makinetearen kokapena aldatu nahi lukeela...”

1953ko G.A.O.ean antzeko eskaria egin zen, oraingoan Gonzalo, Francisco, Maria, Pilar, Carmen eta Valentin Movilla Fernandez jaun-andreak egina.

1936 eta 1944 urteen artean hartu zuen alta industri erroldan, Aguirrezabalaren alarguna eta seme-alaben izenean.

Muzkiritxu-errekako urak erabiltzen zituen eta erreken eskumaldean dago kokatuta.

Kokapena: Osintxu auzoan, errekan gora goazela Bilotegi-errotatik 500 m-ra.

Antxon Agirre Sorondo

GASTON Y DANIELA



Kruz Gallastegi 3 ☎ 943 76 07 37

BERGARA

Inglesina



Banatzaile ofiziala

Agirrebeña

JATETXEA



Agirrebeña jatetxeak zera jakinarazi nahi die bere bezero eta lagunei:

Hemendik aurrera, maiatzera arte, eguakitz, zapatu eta jai bezperetan emango ditugu afariak.

Zure zerbitzura.

Ongi etorri.

Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

Partikularren telefono berriak eta aldaketak

- Telefono berria jarri baduzu

- Berrigara Gida 2000n zure telefonoa agertzen ez bada

- Berrigara Gida 2000n zure telefonoa edo helbidea oker agertzen bada

Berrigarara deitzea

eskertuko genizuke: 943 76 03 97.

Nahiago baduzu, zatoz bertara:

Irizar jauregia, Barrenkalea 33.

Urtarrilean edo otsailean deitu

bazenuen ere, berriz deitzea

eskertuko genizuke,

DATU GUZTIAK EGIAZTATU

ahal izateko.

.....Berrigara **Gida 2001**

Mila esker zure laguntzagatik.


Agorrosingo kirol gunerako ideia lehiaketa deituko du Udalak

Udarako zein negurako igerileku bakarra egin nahi da

**Agorrosingo igerilekue-
tan dauden beharrak az-
tertu ondoren, Udaleko
kirol batzordea ideia
lehiaketa baterako bal-
dintza pleguak aztertzen
ari da. Oraingo instala-
zioak goitik behera be-
rriztu eta udan zein ne-
guan erabili ahal izate-
ko igerileku bakarra eta
bestelako zerbitzuak es-
kaintzea da Udalaren
asmoa.**

Iñaki Ugarteburu kirol teknikariak oraingo igerilekuen egoera aztertu du; barruko igerilekuen kasuan, indarrean dagoen araudira eta herritarren beharretara egokitzeko proiektu baten premia dagoela ikusi da.

Nere Amaia Zabala kirol zinegotziak BERRIGARATI adierazi dionez, "Europar eta Estatuko hainbat hiritan egin diren zenbait proiektu ikusiz, argi dago neguan zein udan erabiltzeko igerileku bakar bat izatea dela egokiena, orain kanpoko gutxiegi erabiltzen baita, urteko hiru hilabetetan, udan bakarrik. Orain esku artean darabilgun asmoa zera da: igerilekuari urteko 12 hilabeteetan etekina ateratzea eta horretarako estalki teleskopiko batek estaliko lukeren igerileku bakar bat egongo litzateke, orain dauden instalazioak baztertuz. Bailaran honelako lehen instalazioa izango da eta proiektu erakargarria eta handizalea da, duda barik. Bailarako jendea erakartzeko baliagarria izan daiteke".



Barruko igerilekuak Gipuzkoako lehenetarikoa izan ziren eta zaharkituak geratu dira.

LAU EREMU

Kirol Zerbitzuko arduradunen arabera, oraingo barruko eta kanpoko igerilekuak bota eta berriak eraiki beharko litzuke ideia lehiaketa irabazten duen enpresak. Hasiera batean, igerilekuen tokian, lau eremu bereiztuko lirateke: igeri egiteko igerileku bat (25x25 m.koa eta 0,8m-1,6 m. sakonera bitartekoa), haurrei zuzendutako beste igerileku bat, txirristak eta ur jolasekin beste eremu ludiko bat eta, azkenik, erlaxazioarako gunea, jacuzziarekin eta hidromasajearekin. Nere Amaia Zabalaren hitzetan, "eremu ludiko hori bailarako erabiltzaileak erakartzeko aproposa izan daiteke, gaur

egun modan direlako horrelako tokiak".

Bestalde, igerilekuarekin batera, aldagelak, sauna, gimnasioak, erreabilitazioarako gelak, squash kan-

**Oraingo
barruko eta
kanpoko
igerilekuak
bota eta berriak
eraiki beharko
litzuke ideia
lehiaketa
irabazten duen
enpresak**

txak, frontoia, kafetegia, eta beste hainbat zerbitzu eskaintzea da hasierako asmoa. Era berean, Ipintzako futbol zelaia etorkizunean belar artifizialekoa izatea nahi du Udalak. Igerilekuak eta Ipintza futbol zelaiko lursaila Udalarenak dira.

Nere Amaia Zabala zinegotziaren arabera, "oraingokoz da epeei buruz berba egiteko, baina 2003. urterako obrak martxan egotea nahiko genuke. Baina, prozesu luzea izango da. Lehenbizi proiektua esku artean izatea beharrezkoa dugu eta hortik aurrera behar den toki guztietan diru laguntzak eskatzeari ekingo diogu, proiektuak inbertsio handia eskatuko baitu.



Labegaraietako futbito txapelketa

EMAITZAK

A MULTZOA

Bar Ugarte-Apa Oxemai	8-0
Bildurbarek-Amoskibar	9-3
Pagomendi-Buya	5-2
Irubide jatetxea-Fac	1-2
Bar Canalejas-Torrekua	6-1
Errotagain-Eri	7-3

B MULTZOA

Amilotx-Aterpe	4-7
Vacalouras-Pint. Bergara	4-4
Suntsitzaileak-Agirrebeña	2-2
Kanpazar Harrob-Etengabe	8-4
Manitou-Tom Cat	7-1
Bayer-Ortzi	2-5

C MULTZOA

Shaktale-Artusamak	2-5
Guadalest-Txipiron	6-3
Latex-Mo(ko)lotov	2-1
Patxaran Team-Mongatxurak	4-5
Komando Piperrak-A Ze Flaxa	1-7

ZAPATUAN BARRUAN

09:30: Ezinleike-Latex	Mongatxur.
10:30: Mongatxurak-Shaktale	Artusamak
11:30: Artusamak-Komando Piperrak	Kanpazar
12:30: Kanpazar Harrob-Manitou	K. Piperrak

ZAPATUAN KANPOAN

09:30: Bildurbarek-Buya	Fac
10:30: Fac-Eri	Etengabe
11:30: Etengabe-Aterpe	Eri
16:00: Ortzi-Amilotx	Agirrebeña
17:00: Agirrebeña-Bayer	Amilotx

DOMEKAN BARRUAN

10:30: Pinturas Bergara-Suntsitzaileak	Irubide
11:30: Irubide jatetxea-Bar Ugarte	Tom Cat
12:30: Tom Cat-Vacalouras	Bar Ugarte
16:00: Mo(ko)lotov-Patxaran Team	Torrekua
17:00: Torrekua-Errotagain	A Ze Flaxa
18:00: A Ze Flaxa-Guadalest	Amoskibar
19:00: Amoskibar-Bar Canalejas	Apa Oxemai
20:00: Apa Oxemai-Pagomendi	Canalejas

EGUAZTENA BARRUAN

16:00: Fac-Bar Canalejas	Etengabe
17:00: Etengabe-Bayer	K. Piperrak
18:00: Komando Piperrak-Guadalest	Bayer

ARGI!

Eguaztenean hiru partidu izango dira

Eguaztena, azaroak 1, jaieguna dela aprobetxatuz hiru partidu jokatu dira Kirolegian. Beraz, eguaztenean jokatu beharko duten taldeek bi partidu izango dituzte epe laburrean.

Fitxak eta zigorrak


Jokalarien nortasun agiriaren fotokopiak aurkezteko azken eguna domeka izango da. Ondoren, ezin izango da jokalaririk apuntatu. Bestalde, Suntsitzaileak taldeko Maikel Cid jokalaria partidu bateko zigorra bete beharko du domekan.

Aterpe, Artusamak, Suntsitzaileak

Aterpe liderrak Amilotxi 7-4 irabazi zion. Suntsitzaileak taldeak lehen puntua eskuratu zuten eta Artusamak Shaktaleri nagusitu zitzaion (5-2).



GORA eta BEHERA



Torrekua, Irubide, Mo(ko)lotov

Irubidek eta Mo(ko)lotov taldeek 2-1eko emaitzarekin galdu zuten eta punturik gabe jarraitzen dute. Torrekua Canaleja-sen aurka galdu zuen (6-1).

SAILKAPENA

A multzoa

	P	J
1. Bar Ugarte	12	4
2. Bildurbarek Opel Lam	10	4
3. Pagomendi	9	4
4. Bar Canalejas	9	3
5. Errotagain	7	4
6. Fac	6	3
7. Apa Oxemai	4	4
8. Buya	4	4
9. Eri	3	4
10. Amoskibar	3	4
11. Torrekua	0	4
12. Irubide jatetxea	0	4


B multzoa

	P	J
1. Aterpe	12	4
2. Ortzi	10	4
3. Amilotx	9	4
4. Pinturas Bergara	7	4
5. Tom Cat Argandolas	7	4
6. Kanpazar	6	4
7. Vacalouras	4	4
8. Manitou	4	4
9. Agirrebeña jatetxea	1	4
10. Etengabe	1	3
11. Suntsitzaileak	1	4
12. Bayer	-3	3

C multzoa


	P	J
1. Mongatxurak	12	4
2. Artusamak	10	4
3. A Ze Flaxa	9	4
4. Guadalest	6	2
5. Txipiron	3	3
6. Latex	3	4
7. Shaktale	3	3
8. Ezinleike	3	3
9. Komando Piperrak	3	2
10. Patxaran Team	1	4
11. Mo(ko)lotov	0	3

Informazio hau babesle hauei esker:




OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13



Irizar 2
943 76 14 95
JAUJA
KIROLAK

mahoneroak



ASIER RODRIGUEZ
BKEko jokalaria

Partidu ona jokatu genuen zapatuan Agorrosinen Alaves C taldearen aurka eta beharbada zerbait gehiago merezi izan genuen. Bi aldiz markagailuan aurreratu arren, zoritxarrez, ezin izan genion abantailari eutsi eta, partidua emaitzeko orduraurden falta zela, falta jaurtiketa baten ondorioz, beraien bigarren gola etorri zen. Binako berdinketarekin konformatu behar izan ginen eta partidu amaieran aldageletan nahiko dezepzionaturik geunden emaitzarekin. Orain arte ez dugu etxean partidurik galdu, baina zapatukoa irabazteko moduko partidua izan zen. Dena dela, taldea bide onetik doala uste dut.

Astebukaera honetan Hernaniren aurka jokatu beharko dugu. Momentuz hiru puntuko aldea ateratzen diegu hernaniarrei, baina nekeza izango da zerbait positiboa lortzea, talde gogorra baita. Horrez gain, bellar artifizialeko zelaia daukate eta gu ez gaude oso ohituta horrelako zelaietan jokatzeraz.

Otsein
Saria

Alaves C taldearen aurkako partiduan hauek nabarmendu ditugu:
Paco Santiago 3 puntu
Ander Berraondo 2 puntu
Txonan Gallastegi 1 puntu
Etzeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.

Bergara-Leitzaran

eskubaloï partidua bihar

Bergararrek galdu egin zuten domekan

Bergarako senior mutilen eskubaloï taldeak Leitzaran taldearen aurka jokatu du, bihar, zapatua, 18:00etan, Kiroldegian. Aldaketa asko izan dira aurreko taldean, baina Edu Orgazek mutilek hasiera ona eman diote ligari. Lehenbiziko bi partidua irabazi ondoren, domekan Egia taldearen aurka galdu zuten.



Jokalari bergararrak joan zen eguakitzeko entrenamenduan.

Senior mutilen taldea Gipuzkoako liga probintzian ari da jokatzeko. Osatu-tako bi multzoetan zortzina talde daude eta multzo bakoitzetik lehenbiziko bi taldeak sailkatuko dira 2. mailarako igoera faseko ligaxka jokatzeko. Edu Orgazek entrenatzen duen taldeak hiru partidua jokatu ditu orain arte: Mutrikun irabazi ondoren (18-27), Urnietari irabazi zioten Bergaran (23-19). Joan zen domekan, berriz, 28-17ko emaitzarekin galdu zuten Donostian, Egiaren aurka. Edu Orgazek araberak, "defentsan ondo ibili arren, erasoko jokaldietan ez genuen asmatu domekan, partidua txarra jokatu genuen". Talde gaztea du Bergarak eta esperientzia handiagoko taldeen aurka neurtu beharko dituzte indarrak. Orgazek esan digunez, "aldaketa asko izan dira taldean eta beharbada esperientzia falta nabaritu dezakegu, beste talde batzutan 30 urteko jendea dagoelako. Dena dela, ikusiko dugula zelan moldatzen garen

BERGARAKO JOKALARIAK

ATEZAINA

Ekain Sotil

HEGALEKOAK

Lander Juaristi

Asier Mujika

Aitor Sanchez

Iban Orgaz

LATERALAK

Ibai Goenaga

Urko Altzerreka

Joseba Larrañaga

Iker Retolaza

Jon Mendizabal

EUSKARRIAK

Mikel Agirrezabal

Eugenio Cabo

Garikoitz Arregi

ZENTRALAK

Ruben Sanchez

Ibai Gomez

Entrenatzailea: Edu Orgaz

2. entrenatzailea:

Aitor Gomez

Delegatua: Jorge Mendibil

denboraldian zehar. Igoera ligaxka sartzeko borrokan aukerarik daukagun ligaren erdialdean ikusiko dugu".

Esan bezala, bihar, zapatua, Leitzaran taldea hartuko du Bergarak. Orgazek hitzetan, "beste garaipen bat lortzeko asmoz kantzaratuko gara". Taldeak jokatzen duen sistema aldatu du aurreko taldearekin, eta 3-2-1eko sistemarekin 6 metroan defenditzera pasatu da. Sistema honekin Orgazek bere taldeak joko azkarra egitea lortu nahi du: "kontraerasoan aurkariak ustekabe harrapatzea da gure helburua. Baloia ahalik eta azkarren errekuperatu eta kontraerasoan ziztu bizi irten, horrela jokatzeak esfortzu fisiko handia eskatzen duen arren".

Taldearen arazo nagusietako bat atezain bakarra izatea da. Beste atezain bat lortzeko ahaleginetan ari dira eta, era berean, babesle baten laguntza faltan botatzen dute, "gustatu litzaike babesle batek taldearekiko interesa azaltzea".

EMAITZAK

FUTBOLA

Bergara 2; Alaves C 2

Hirugarren maila

Eibartarrak 1; Bergara 1

2. erregionala

Ilintxa 2; Bergara 1

Neskak

Urola 2; Bergara 2

Ohorezko jubenilak

Bergara 4; Zestoa 3

Lehen mailako jubenilak

Zarautz 2; Bergara 0

Ohorezko kadeteak

Bergara 2; Arrasate 2

Bigarren mailako kadeteak

Bergara 0; Anaitasuna 2

Infantilak

SASKIBALOIA

Bergara 79; Lasalle 63

Senior mutilak

Bergara 48; Askatuak 70

Kadete mutilak

ESKUBALOIA

Egia 28; Bergara 17

Senior mutilak

Legazpi B 12; Bergara 24

Jubenil mutilak

Aloña Mendi 19; Bergara 12

Kadete mutilak

PILOTA

Bergara 21; Intxaurren 22

Jubenil banaka

Bergara 21; Zumarraga 22

2. mailako jubenilak

Amezketak 22; Bergara 20

Lehen mailako seniorrak

Antzuola 22; Bergara 6

Lehen mailako jubenilak

KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Almen

Neskak. Zapatua. 10:00. Ipintza

Bergara-Mariaren Bihotza

Ohorezko kadeteak. Zapatua. 11:30. Ipintza

Bergara-Elgoibar

Ohorezko jubenilak. Zapatua. 15:45. Ipintza

Bergara-Aurrera Ondarroa

2. erregionala. Zapatua. 17:30. Ipintza

ESKUBALOIA

Bergara-Arrasate

Kadete mutilak. Zapatua. 16:30. Kiroldegia

Bergara-Leitzaran

Senior mutilak. Zapatua. 18:00. Kiroldegia

SASKIBALOIA

Bergara-Loiola

Senior mutilak.

Eguaztena. 12:15. Kiroldegia

PILOTA

Bergara-Eskoriatza

Bigarren eta lehen mailako jubenilak

Gaur, eguakitzan, 20:00etan

Udal Pilotalekuan

Zubikarai (Deba)-Agirre (Onati) eta

Agirre (Antzuola)-Herran (Bergara)

Baque txapelketa. Martitzenean,

19:30ean, Udal Pilotalekuan.

Behobia-Txiki lasterketako partaideek 15 kilometroko ibilbidea bete beharko dute bihar

Behobia-Txiki lasterketa jokatu da bihar, zapatua, 10:30ean. Ohikoa den bezala, partaideak Agorrosingo igerilekuen ondotik irtengo dira eta 15 kilometroko ibilbidea bete beharko dute, Sorluzerainoko joan-etorria alegia. Proba hau Behobia-Donostia lasterketa gertatzeko helburuarekin jaio zen eta partaidezak gora egin du urtetik urtera. Behobia-Donostia azaroaren 12an izango da



Partaidetzak gora egin du urtetik urtera.

(izen-ematea Lazkano oinetako dendan egin daiteke).

Antolatzaileek gogorazi dutenez, Behobia-Txiki ez da lehiakorra; beraz, korrikalari guztiei bertan parte hartzeko gonbita egiten zaie. Ez dago izena eman beharrik proban parte hartzeko. Igerilekuetan aldatu eta dutxa hartzeko aukera izango da. Probaren ostean, ohikoa bilakatu denez, herri bazkaria egingo da Iraho jatean.

JOKIN ETXANIZ/ Pilotaria

"Zaila izango da berriz ere Titini Logroñon irabaztea"

Jokin Etxanizek lau t'erdiko txapelketan debuta egingo du azaroaren 5ean, Logroñoako Adarraga pilotalekuan, Titin III.aren aurka. Etxanizek Triciokoari irabazi zion azken txapelketan, baina berriz errioxarra menderatzea oso zaila izango dela dio.

G. Iaz lau t'erdiko txapelketan finalerdieta iritsi zinen. Aurten, zein asmo?

E. Datorren domekakoa hil ala biziko partidua izango da. Irabazten duenak aurrera egingo du ligaxka jokatzeko eta galtzen duena, berriz, kanporatua izango da. Oso zaila daukat Titini Logroñon irabaztea, baina ahal dudan partidurik txukunena egiten saiatuko naiz, horretarako gertatu naiz-eta.

G. Iaz Logroñon bertan irabazi zenion Titini...

E. Bai, baina egoera desberdina da. Orduan,

ni aurretik jokatu nengoen eta bera ez. Eta aurten alderantziz gertatu da. Berak Lasari irabazi dio eta niretzat lehenbiziko partidua izango da. Oso zaila izango da iazko txapelketa errepikatzea.

G. Zelan jokatu behar da Titinen aurka?

E. Normalean berak markatzen du erritmoa. Azkar jokatzeko eta tantoa ahalik eta bizkorren amaitzea gustatzen zaio eta nire helburua airera sar ez dadila eta botean joka dezala izango da. Baina, gauza bat da teoria eta bestea praktika...

G. Prestaketa berezirik egiten duzu lau t'erdirako?

E. Frontoian entrenatzeko ez dut nahi beste denborarik izan. Iker Muruamendiarekin eta Galartza V.arekin batera entrenatu naiz, baina aste honetan eskuetatik gaizki ibili naiz eta entrenamendu fisikoa egin dut bakarrik. Ea datorren astean berriz frontoian entrenatzen dudan.

G. Domekan, Elkororekin batera, Goñi eta Bernaren aurka jokatu zenuen Eibarren. Zelan ikusi zenuen Goñi?

E. Partidu horretan nahiko serio ikusi nuen. Ikusi beharko da hemendik aurrera berdin jarraitzen duen. Berarendako eta pilotarendako ona izango litzateke domekan erakutsi zuen jarrierari eutsiko balio.



AZPEITXI

Aranerreka 13 behea ☎ 943 76 55 00

Jatetxea



**Matxiategi
Elektragintza
S.L.**

**ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA**


Zurradero 8, behea. 943 76 19 94.

Egipto ezagutzen

Urrian, 8 egunez, Egipton izan ziren Santa Marinako katekistak, lagunak eta Xabier Zubizarreta, Sinai ere bisitatu. Eroskik eta Julia Tours-ek antolatu zuten bidaia. Primeran ibili ziren 33 bergarar hauek! Hurrengo arte!



Eta abenduko zubian...



Lierganeseko bainu etxea	39.675 pta.*
Salou	17.700 pta.*
Pragara Bilbotik	73.400 pta.*
Istanbul	51.900 pta.*
Val Thorens (Alpe frantziarrak)	36.900 pta.*
Paris	30.800 pta.*

* Prezio honetatik aurrerako eskaintzak

Gainera, azarorako ere eskaintzarik onenak!



IRIZAR I
943 76 26 76
Faxa 943 76 71 13

► Prezio Onak baino gehiago

El nacimiento del siglo XXI
nos mendea
akordioa
sacral de 800 años
bai
euskarari



MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
ALAI GARAJEA PEUGEOT. Urarte, 12 Bergara Tel.: 943 76 22 96				
Peugeot Sedan 1.6		2000	Kilometro zero	*6
Peugeot 406 1.9 SRDT		1999	Aire egokitua	*7
Peugeot 306 1.9 XSDT 3 ate		1998		*6
Jeep Grand Cherokee 2.5 TD		1997	Aire egokitua	*8
Peugeot Boxer 2.5 TD Furgoia		1996		*6
Renault 1.9 TD		1996		*6

AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tel.: 943 76 09 30

Peugeot 206 XR 1.4 3 ate				*5
Peugeot 306 Diesel			AG-LD	*4
Peugeot 306 Diesel			AG-LD- 2 AIRBAG	*6
Peugeot 205 Diesel 3 ate			LD	*3
Peugeot 306 XSI			ABS- AG-LD- AIRBAG	*7

BERRIA GARAJEA. Amillaga 49 Bergara Tel.: 943 76 22 43

Citroen ZX TD 3 ate	SS-AV	1995	AG-IE-IK-IZ-KE-LD	*5
Honda Concerto 1.5i 16 V	BI-CG	1994	AG-IE-IK-IZ-KE-LD-AH	*3
Fiesta 1.1 Trip 3 ate	SS-AN	1992	IK	*2
Toledo 1.8 GT Sport	SS-AL	1992	AG-IE-IK-IZ-KE-LD-AH-ABS	*3
Mondeo RS V6	SS-BG	1999	AH-IE-IK-IZ-KE-KL-LD-LK	*7
Escort Ghia 1.8 TD	SS-BD	1998	IK-IZ-KE-LD	*5
Peugeot 309 GTX	SS-AK	1991	LD-KE-IZ-IE-AH	*3
Orion 1.6 Ghia	SS-AD	1989	IK-LD-AG-IE-IZ	*1

CHAPIME TAILERRAK. Araba Etorbidea 5 Arrasate Tel.: 943 79 45 22


Opel Vectra 1.7D GL	BI 3467 BL	1992		*3
Fiat Uno 7D SX i.e.	SS 7089 AJ	1990		*2
Opel Astra 1.7 TD GL	SS 9632 AT	1994		*4
Renault 19 1.8 TXI	SS 2850 AK	1991		*2

A: Alerioa AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagnak AL: Alarma BA: Balbula anitza ES: Eguzki Sapaia
 IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapaia elektrikoak UAT: Urrutiko aginte tresna

*1: 300.000 PTArate arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA


*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000-3.000.000 PTA
 *8: 3.000.000 PTAtik aurrera

JASO GARAJEA



Autoen konponketa orokorra

Amillaga 1, 4 pabilioia.
 Bergara. Tel.: 943 76 33 00



AUTO DESGUACES BERGARA

Tel.: 943 76 35 47 (desguazekoa) • 943 79 76 33 (etxekoa)

BIGARREN ESKUKO PIEZAK
 PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
 GRUA ZERBITZUA

PENAKOBA



Zarugalde, 46 Lizaur arkitektoa, 7
 Tel./Faxa: 943 79 29 93 Tel.: 943 78 05 60
 ARRASATE ONATI

MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

FIAT KANPAZAR C.B. Bizkaia Etorbidea, z/g Arrasate Tel.: 943 79 41 98

Fiat Punto 1.2. 3 ate		2000		*5
Fiat Punto 1.2. 3 ate		1999		*5

MECA. San Andres, 8 Arrasate Tel.: 943 71 21 67

Scenic 1.9 DTI RXE	SS-BG	1999	LD, IZ, KE, ABS (4) AIRBAG, AG	2.450.000
Honda 2.0 CRV 4X4	SS-BD	1998	LD, IZ, KE, ABS (2), AG	2.650.000
VW GOLF GTI Serie III	SS-AP	1993	LD, IZ, KE, ABS, AG	1.180.000
Ford Courier Combi 1.8 TD	SS-BF	1999	LD, AG, AIRBAG	1.275.000
Ford Courier Furgon 1.8 TD	SS-BF	1999	LD, AG, AIRBAG	725.000
Peugeot 306 Coupé XS-TD	SS-AY	1997	LD, IZ, KE, AIRBAG	1.375.000
Safrane 2.2 DT	SS-AZ	1997	LD, IZ, KE, AIRBAG CLIMET	1.690.000

OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara Tel.: 943 76 47 74

Opel Vectra 2.0i GT	Aukera paregabeak	Kontsultatu	Full-Equip	*3
Audi 200 4x4 Turbo			Full-Equip	*2
Renault Express mixta			Hifi	*1
Renault R-21 1.7 5 ate			Hifi	*2
Citroen XM 2.2 diesel			AG/Hifi/LD/IZ/KE	*3
Citroen BX 14 TGS			Hifi	*1

SEAT UDALAITZ. Musakola auzoa, z/g Arrasate Tel.: 943 79 18 80

Ford Fiesta 1.1 5 ate	CO 4891 AG	1991		*2
Golf 1.4. 3 P.C.L.	SS 7046 AW	1997		*4
Audi Coupe 2.3.	SS 4594 AX	1992		*4
Seat Marbella	SS 0625 AL	1992		*1

GARAJE MURILLO

Mekanika orokorra

Leizeaga 4 • Bergara
Tel.: 943 76 13 84




SAN MARTIN
KARROZERIAK

Autoaren konponketa orokorrean

San Juan Auzoa: Barrutixiki pabiloak, 1
Tel.: 943 76 07 97
20570 BERGARA

Garajeko mandoen kopiak egiten ditugu!



Txorno
Auto-errekabioak
Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95

AGUSTIN

Automobilaren karburazio eta elektronika



Uribarri etorbidea 16.
Arrasate. 943 79 73 58



Garibai Etorbidea, 5
Tel.: 943 79 22 96
ARRASATE

Larringan

GIDARI ESKOLA
ARRASATE ARETXABALETA

Basabe Poligonoa F0-7 eraikuntza
Tel.: 943 79 64 50
ARETXABALETA

DENA AUTO

Tel.: 943 71 23 91
943 76 03 97

DENA AUTO 14. alea. 2000.eko urria

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Matxiategi.
943 76 34 33.

Zubiaurre. 100 m².
Prezio ona. 943 76 28 49
edo 627 642 055.

Soraluze. 943 76 50 69.

Duplexa Urteagan.
Berriztua eta berogai-
luarekin. 43 76 73 07
(Belen).

Apartamentu txikia
Barrenkalea 34an.
Oso txukuna eta jantzia.
656 740 165.

Zabalotegi, ganbarare-
kin eta berriztua. 50 m².
943 76 07 01.

Bolun, jantzia.
607 455 396.

EROSI

Baserría erosiko nuke
Bergaran. 943 18 77 57.

ERRENTAN EMATEKO

Logelak alokairuan, su-
kaldea erabiltzeko esku-
bidearekin. 943 76 15 40.

Etxea alokairuan Irabu-
ru 8an. 943 76 39 91.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktatuak
Deiak
Bestelakoak

Etxeko logelak aloka-
itzen ditut. 943 76 43 95.

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua hartuko nuke alo-
kairuan. 696 782 176
(Loli) edo 630 712 318
(Marta).

Pisua alokairuan hartu-
ko nuke. 943 76 40 79
(Karmen)

Etxea alokatu nahi dut
Bergaran edo inguruan.
943 76 30 84.

Etxea alokatu nahi

nuke. 943 76 90 83.

Apartamentu txiki baten
bila nabil. 655 747 321.

Pisua alokairuan hartu-
ko nuke. 678 212 657.

ETXE KONPARTITUAK

Gela edo pisu
konpartitua alokairuan
hartu nahi nuke.
943 36 34 59 (Rakel).

Donostiako Amaran
ikasleen pisua osatzeko
neska behar da.
943 47 32 67.

2. GARAJEAK

SALDU

Bolu. 943 76 19 69.

Aranerreak.
943 76 24 84.

Antzuolan, Ibarrodo
kalean. Apalekin.
943 78 70 08.

ERRENTAN EMATEKO

Mugertza. 943 76 40 99
(gauzez).

Burdiñate. 943 76 02 34.

Boni Laskurain.
Deitu 606 217 256
telefonora.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea edo lokal
komertziala hartuko
nuke alokairuan, 40-60
m²koa. 646 673 204.

3. LOKALAK

SALDU

Autobus geltokiaren
ondoan bulegoa (58 m²).
607 344 658.

ERRENTAN EMATEKO

Lokala alokairuan herri
erdian. 120 m².
617 025 376.

Lokala errentan Bolun
(100 m²) eta Arruriagan
(18 m²). Oso merke.
606 962 380.

4. LANA

ESKAITZAK

Emakumea, umeak
zaindu edo etxeko lanak
egiteko gertu.
943 76 56 92.

Lana egingo nuke
15:00etatik 17:00etara.
943 76 36 68 (13:00-
14:00 eta 19:00-21:00).

Mutil atzeritarra lane-
rako gertu. 686 662 271.

ESKAERAK

Pertsona euskalduna
behar da umeak zaindu
eta etxeko lanak egite-
ko. 943 76 70 33.

Neska behar da umeak
zaindu eta etxeko lanak
egiteko. 943 76 19 27.

Emakumea behar da
etxeko lanak egin eta
umeak zaintzeko.
943 76 07 89.



Gozogintzan
aintzindari.

- ✗ Ezkontzak
- ✗ Bataioak
- ✗ Jaunartzeak
- ✗ Enpresa bazkariak eta lagunartekoak
- ✗ 150 lagunendako jangela



PARKINA ETA TERRAZA
BASTER-ALDE
J A T E T X E A

Galartza auzoa • ARETXABAleta
Tf.: 943 79 24 58



ANDUZU S.L.
Simon Arrieta 1, 4-C
607 349 043



Garobi zerbitzua

Zerbitzu publikoa eta era guztietako kargak

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Ingeles Filologian lizenziadunak ingeles eskolak ematen ditu.
943 76 30 28 /
659 331 741.

Marrakzi eta pintura eskolak ematen ditut.
943 76 40 14.

Ingeles eskolak ematen ditut. 943 76 31 72.

Ingeles klaseak ematen ditut. 649 577 059
(18:00etatik aurrera).

ESKAERAK

Batxilergoko 1. mailako eskola partikularrak jasosahi genituzke. 653 749 990.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Trialeko motoa. 250 cc. 125.000 pta.
943 79 78 36.

Honda CB500 motoa (1996). 34 CVra mugatuta. Estrak. 678 084 367.

Renault Laguna. Bi urte eta erdi. 70.000 km.
943 76 45 73.

Fiat Tipo 2.0 16V (SS-AN). 686 457 610
(18:00etatik aurrera).

Derbi Variant motoa. 943 76 49 88.

Opel Kadett 1.7 D (SS-AJ). 943 76 31 21.

Citroën Berlingo 2000 HDI. Otsailean erosia. Estrak. 610 384 896.

Scooter Skipper 125 motoa. Matrikulatua, ia berria. 943 76 61 05.

Seat Marbella. (SS-AF). 150.000 pta.
679 874 695.

Opel Corsa (SS-BB). 15.000 km.
Deitu 943 79 27 30
telefonora.

Audi A4 berria. 943 76 02 08.

7. ANIMALIAK

SALDU

Yorkshire Terrier txakurkumeak. 943 76 18 96.

Hiru hilabeteko artzain txakurrak. 943 76 52 21.

Hiru urteko pointera. 943 76 40 03.

Boxer eta cocker

txakurkumeak. Pedigri-dunak. 696 05 73 46.

8. DENETARIK

SALDU

Piragua ia berria, gerriko estalkitoxa eta arraunarekin. Merke. 943 79 78 36.

Irristagailudun tronboia. Ia berria. 943 76 21 92.

Zanussi izozkailua, 7 kaxoiduna. Ia berria. Prezio ona. 943 76 12 01 edo 619 176 419.

Yamaha Hosseschrueders HC30R piano berria. 943 76 06 41 (gauetz).

Ordenagailuaren bozgorailuak. 677 648 230.

Bulegoko zurezko mahaia eta marrazteko mahaia eta aulkia. 607 344 658.

Jangelako altzari zaharrak: bi komoda tailatu eta mahaia, 6 aulkirekin. 639 779 592.

Egongelako altzaria. 2,8 m. 943 76 41 31.

Opel autoendako parri-lla, 2 bizikleta eramateko. 943 76 03 75.

EROSI

Borda erosiko nuke. Deitu 943 76 26 82 telefonora.

Txanpon zaharrak erosiko nituzke. 639 822 790 (Pello).

Bigarren eskuko saxofoi altua erosiko nuke. Deitu 943 76 29 67 telefonora.

Bigarren eskuko umeendako kotxea erosiko nuke (bikiertzat). 943 76 19 27.

GALDU


Urre koloreko perla urdindun lepoko bat galdu nuen urri hasieran, Martoko eta Zubiaurre artean. 943 76 17 21.

AURKITU

Zapelaitz tabernan Kerastase aterkin bat topatu dut. 943 76 12 86.

BESTELAKOAK

Botatzeko daukazun te-lebista hori gustura hartuko nuke edo merke erosiko. 943 77 91 25, lanorduetan (lon).



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

INKESTATZAILEAK
Bergara. 40532/0

SUKALDARIA
Gasteiz. 36935/9

PROIEKTU
TEKNIKARIA
Durangaldea. 38026/2

KOMERTZIALA
Debabarrena. 38290/3

TELEMARKETING-EKO
LANGILEA
Bilbo. 38760/1

ADMINISTRARIA
Ibai ezkerrialdea. 39244/2

CNC FRESATZAILEA
Donostia. 39362/1

SUKALDARI
LAGUNTZAILEA
Ezkarai. 39736/2

TROMPA IRAKASLEA
Arabar lautada. 39921/2

INDUSTRI INGENIARI
TEKNIKOA
Debabarrena. 39927/3

ALMAZENERAKO
LANGILEA
Debabarrena. 39933/2

MICROSOFT
IRAKASLEA
Bilbo. 39944/2

KIMIKARIA
Tolosa. 40016/3

3D ESTUDIO MAX
IRAKASLEA
Bilbo. 40134/2

INFORMATIKA
IRAKASLEA
Bidasoa behea. 40137/3

EUSKAL DANTZEN
IRAKASLEA
Ibai ezkerrialdea. 40217/1


FINANTZA
PRODUKTUEN
KOMERTZIALA
Bilbo. 40307/1

TURISMO IRAKASLEA
Donostia. 40403/1

WINDOWS IRAKASLEA
Donostia. 40439/1

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Aromaterapia ikastaroa




- Azaroaren 14tik abenduaren 14ra. Martitzen eta eguenetan
- 15:00etatik 17:00etara / 19:00etatik 21:00etara
- Izena emateko azken eguna azaroaren 10a
- Bazkideek 5.000 pta. Besteek 6.000 pta.
- Informazio gehiagorako: 943 76 36 61

GAIAK

- Aromaterapiari buruzko informazio orokorra.
- Olio esentzia aztertu eta produktuak egin:
 - Masajeak emateko lozioak
 - Kremak
 - Ukenduak
 - Aurpegiko tratamenduak: maskarillak
 - Txanpuak

- Estresa eta aromaterapia eta emozioak.
- Erlajazioa eta musikoterapia.
- Reflexoterapia.

Bakoitzak 5 produktu egin eta etxera eramateko aukera ere izango du.



ILE APAINTZAILE
lanetarako
emakumea behar da
943 76 22 48

Jean Louis David

Ibargarai 43, Bergara

Furgoneta daukan pertsona

behar da Almacenes Arrasaten

943 77 13 52
943 77 00 34



Hogei urte dira Donostiako Orfeoia herrian emanaldirik eskaintzen ez duela.

KOTE CABEZUDO

Donostiako Orfeoia kontzertua eskainiko du zapatuan San Pedro parrokian

Donostiako Orfeoia 20:00etan eskainiko du kontzertua bihar, zapatua, San Pedron. Bi atal izango ditu: lehenengoa, klasikoagoa, organoz lagunduta egongo da. Bigarrenean zarzuela eta opera izango dira nagusi, eta pianoak lagunduta.

Hogei urte inguru dira Donostiako Orfeoia Bergaran emanaldirik eskaintzen ez duela. Antzina, Bergarako eta Donostiako Orfeoien artean harreman handia zegoen. Izan ere, Bergarako taldeko hainbat kide errefortzu gisa aritu izan ziren donostiarrekin hainbat emanalditan.

Bi hamarkadaren ostean, bihar emanaldia eskainiko du eta sarrera doan izango da. Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzarmen bat sinatu ohi du Donostiako Orfeoia. Horren arabera, urtean Gipuzkoako bi herritan emanaldiak doan eskaini behar dituzte donostiarrek. Bergarako Udalak urte askotan egin du Orfeoia ekartzeko eskaera, eta aurten jaso du baietza.

13 OBRA

Eskainiko duen kontzertua bi zatitan banatuta dago: lehenengo zatia klasikoagoa izango da, eta bigarrenean zarzuela eta opera nagusituko dira.

Lehenengo zatiari dagokionez, aipatzekoa da koruan abestuko duela Orfeoia eta Jose Manuel Azkue organistak bakarka bi pieza eskainiko dituela. Bestalde, eskainiko den obretako batek lotura zuzena du Bergararekin, "Begarako Kristo Gurutziltzatuari" piezak hain zuzen. Secundino Esnaolak, Orfeoiko zuzendari izandakoak, idatzi zuen 1926. urtean, eta San Pedroko koruko lagunei eskaini zien. Antzina, Ostitral Santu egunean abesten zuten.

Bestalde, 250 urte betetzen dira aurtengo Bach hil zela. Horregatik, konpositorearen hiru obra eskainiko ditu Orfeoia lehenengo zatian.

Pol-Pol argazki taldearen rallya domekan jokatuko da

Domekan, hilak 29, Pol-Pol argazki taldeak urtero antolatzen duen argazki rallya izango da, Kiñu eta Argazki denden laguntzaz. Edonork har dezake parte, eta izen ematea egunean bertan izango da, 8:30etik 9:30era, Zabalotegiko 5. zenbakian. Modalitatea 35 mm.ko diapositiba, 100 ASA

izango da. Gaiak izena emateko orduan ezagutuko dira, eta baita ibilbidea ere. Rallya 14:00etan amaituko da, eta ordu horretan itzuli beharko dira karreteak taldearen egoitzan.

Errebelatutako karreteak azaroaren 6an jasoko dira egoitza berean, arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara. Parte

hartzaile bakoitzak gai bakoitzeko diapositiba bana aukeratu eta azaroaren 13an eman beharko die antolatzaileei, jasotako toki eta ordu berean. Diapositiba bakoitzari zenbakia eta gaia jarri beharko zaizkio. Sari banaketa eta diapositiben proiektzioa azaroaren 24an izango da, 20:00etan, Pol-

Pol argazki taldearen lokaletan.

Bost sari egongo dira: lehen, bigarren eta hirugarren multzorik onenak; herriko onena eta gazte saria. Lehenengo laurek dirua eta Maria Jesus Manzisidorren garaikurra jasoko dute. Gazte sariak, aldiz, garaikurra eta liburu bat.

Koldo Amestoy ipuin kontalaria Pol-Polen eguenean

Koldo Amestoy ipuin kontalaria "Ipuinak umeak lokartu eta helduak esnatzeko dira" bere azken lana eskainiko du datorren eguenean, azaroak 2, gaueko 22:00etan, Pol-Pol tabernan.

Ezagunak dira Amestoyren "Hitz eta pitz", "Kondharian" edota "Mari-bil" lanak. Emanaldia Kultur Errota egitasmoaren eskutik datorkigu.

Kultur errotaren barruan ere, azaroaren 4an, 11 urtetik hasi eta 14 urte arteko neska-mutikoendako antzerki saioa egongo da Kartzela Zaharrean arratsaldeko 18:00etan. Durangoko Itzal Antzerkiak "Zuhaitz gaineko txabola" eskainiko du. Sarrera 200 pezeta kostatzen da eta Jarduneko bazkideendako doan izango da.



Koldo Amestoy.

Eustaquio Agirreolearen bizitza eta herriko hirigintza eta arkitektura, liburu banatan

Jesus Gil Massak Bergarako hiri-gintzari buruz idatzitako tesi doktora argitaratu du Udalak.

Gil Massak idatzitako "Urbanismo y Arquitectura Civil en Bergara. Siglos XIII-XVIII" obraren gaineko hainbat eskubide erosi eta argitaratzeko gastuak onartu ditu Gobernu Batzordeak. Gastu guztien aurrekontua 7.500.000 pezetakoa da. Liburua ilustratzeko, Benito Cantero argazkilaria bergararraren herriko monumentuen inguruko 46 diapositibako bilduma erabiliko dute.

EUSTAQUIO AGIRREOLEA

Eustaquio Agirreolea Bergarako pintore eta argazkilaria bizitzari buruzko

liburua ere kaleratu du Udalak. Argitalpenaz EPS enpresa arduratuko da, eta aurrekontua 5.500.000 pezetakoa da. 4.000 ale kaleratuko dira.

Bestalde, azaroaren 3tik 12ra bitartean, Agirreolearen lana ikusteko aukera egongo da Udaletxeko pleno aretoan. Agirreolea argazkilaria profesionala izan zen, eta 1891. urtean herriko lehenengo argazki denda ireki zuen Barenkale 19an. Gerra Zibilera arte izan zuen negozioa zabalik. Gerra hasi, eta Donostiara joan zen bizitzera. Udal Agiritegiak Agirreolearen lana berreskuratu berri du. Kristalezko 113 plaka dira, eta erakusketan emango dira eza-gutzera.

erreseinak



Egonean doazen
geziak
Joxerra Garzia
Aforismoak

Begi-ninia ere kabituko ez litzatekeen zirrikituan kabitzen zaio begirada Joxerra Garziari. Eta ikusten duenaren berri gezi itxurako pentsamenduen bidez ematen digu, jomuga jokatokan irakurleoi dardar doi bat eragitera iristen direnak. Kanoiek-eta jomuga suntsitzea dute xede. Geziok, berriz, azkura eragitea baino ez. Berak azkura sentitzen duelako jaurtitzen du gezilariak gezia, jomugan duenari azkura hori txertatu beste asmorik gabe.

- Alberdania. 202 orr. 2.600 pta.



Uga
Hau da gaua
Dance

Carl Watermarc-ek Run Down Music diskoetxerako zuzenduriko ekoizpena dugu hau. 2000. urteko uztaila eta abuztuan grabatu zen aipatu diskoetxeko estudioetan. Run Down Music, euskaraz egindako Dance musika argitaratzen duen enpresa da. Bere helburua, Europan horren zabaldua dagoen Dance musika Euskal Herrian ere zabaltzea da. Carl Watermarc talde ugariaren sortzailea da, Wazen talde ezaguna, esaterako, eta baita hemen dakar-gun Uga bera ere. Estitxu Sudepe dugu Uga, eta hauxe da grabatzen duen bigarren diskoa. Hamaika kantuz osatuta dago, eta guztien hitzak Estitxu Sudepek egin ditu.

- Run Down Music. 2.100 pta.



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerreka 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxe: 943 76 11 40.

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMA

Ezker eskuma

1. Egurnero kaleratzen diren agerkariak. 2. Itsasoaren mugimendua Ospa! 3. Harkaitza. Zango-atal. 4. Portu. Mea-mota. 5. Hegazti-mota. Bokala. 6. Musika nota. Trebe. Interjekzioa. 7. Bokala. Begiaren erdian. Tona. Urtaño beroa. 8. Arrainen brankia. H2O. 9. Suari dariona. Bokala. Zuhaitz-mota. 10. Pl., hegazti-mota. Gipuzkoako herria.

Goitik behera

1. Emakume. 2. Zamak altxatzeko tresna. Euskaraz eta kitto! 3. X. hilabetea. Gai. 4. Berri adierazteko aurrizkia. Letoniako hiriburua. Kontsonantea. 5. Oiloaren oihua. Infusio-mota. 6. Bokala. Nafarroako herria. Potasioa. 7. Jainko egiptoarra. Diosala hitza. Urrea. 8. Espartako esklabua. Uranioa. Radioa. 9. Deiadarra. Izan 10. Infin., kendu. Ataurrea.

Soluzioa

10. Ken. Atara. 8. Iliota. U. Ra. 9. Adia. Eduki. Agotz. K. 7. Ra. Aio. Au. Riga. L. 5. Kakara. Tea. 6. A. AEK. 3. Urria. Ekai. 4. Neo. 1. Emakumezko. 2. Garabi. Goitik behera: 10. Okiak. Ala. 8. Zakatza. Ur. 9. Kea. E. Urki. Iai. Eti. 7. E. Eg. T. Uda. Agata. 5. Ubarroia. A. 6. Mi. Aldi 3. Arroka. Oin. 4. Kai. 1. Egunkariak. 2. Mareta. Ezker eskun:

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereziabar




Bergarako zein lekutan daude kapera eta irudi hau?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!

1. Zein bakteriak sortzen du meningitis gaisotasuna?
A- Meningokokoak
B- Meningisak
C- VLHak
2. Zein da senior mutilen eskubaloi taldeko entrenatzailea?
A- Xabier Lijo
B- Josetxo Muniategi
C- Edu Orgaz
3. Zein da Koldo Amestoyren lan ezagun baten izena?
A- Hitz eta mitz
B- Zuhaitz gaineko txabola
C- Lorik ez egiteko ipuinak



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Begoña Urkizurenzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Begoñari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Olaso dorretxea eta Ondartza etxea** Galde Debalde: **1-B, 2-B, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Campo Viejo
ardo beltza ala gorria, 3/4 l.
459 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Asteko programazioa

EGUAKITZA 27

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza.
13:55: Ekilan (errepika).
20:00/20:30/21:00: Berriak.
21:30: Astebete.
22:00: Soinuz blai. Miren Gonzalez-
 zek aurkeztuta.
22:30: Gatza eta Berakatza.

ZAPATUA 28

13:30: Gatza eta Berakatza, Alka-
 tearekin berbetan, Ekilan, Soinuz
 Blai eta Astebete.

DOMEKA 29

13:30: Gatza eta Berakatza, Alka-
 tearekin berbetan, Ekilan, Soinuz Blai
 eta Astebete.

ASTEKEHENA 30

13:30: Albiste aurrerapena.

Goitb

Goiena Telebista

Bergaran 41 kanalean

13:40: Gatza eta Berakatza.
13:55: Astebete.
20:00/20:30/21:00: Berriak.
21:30: Goienasport.
22:00: Gatza eta Berakatza.

MARTITZENA 31

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza.
13:55: Goienasport (errepika).
20:00/20:30/21:00: Berriak.

21:30: Mahaiaren bueltan.

Monika Belastegik aurkeztutako
 solasaldi saioa. Ikusleek parte
 hartzeko aukera izango dute.

22:15: Gatza eta Berakatza.

EGUENA 2

13:30: Albiste aurrerapena.
13:40: Gatza eta Berakatza.
13:55: Mahaiaren Bueltan
 (errepika)
20:00/20:30/21:00: Berriak.
21:30: Hamaika Magazin
 Añi zozketara! Deitu 943 71 23 93
 telefonora.
22:00: Soinuz Blai.
 Haika Aizpuruak aurkeztuta.
22:30: Gatza eta Berakatza.

kontuan hartzekoa

Plaza irekia iritzi guztiei

Mahaiaren Bueltan Martitzena, 21:30

Goiena Telebistak mahai inguru antolatuta du, baina denboraldi honetan izen berria hartuko du saioak: *Mahaiaren Bueltan*. Hilean behin egingo da, hileko azken martitzenetan, albistegiaren ostean.

Monika Belastegi bergararrak aurkeztuko du *Mahaiaren Bueltan*. Berrigara aldizkarian egiten du lan Monikak eta baita GOITBren albistegian ere, Bergarako berriak-eta lantzen. Hauze izango da telebistan aurkeztuko duen lehen programa.

Lau bat lagun izango ditu hileroko, mintzakide. Saioa indartzeko, erreportaje bat eta kale galdeketa egingo dira, aukeratzeko den gaiaren inguruan.

Saioak ordubete inguru iraungo du. Ikusleek aukera izango dute eztabaidan parte hartzeko, telefonoz deituta. Horretarako 943 71 23 93 zenbakira deitzea besterik ez duzue.



Etxebizitzak aztergai

Datorren martitzenean etxebizitzaren arazoa eztabaidatuko da. Mahaiaren bueltan honako gonbidatu hauek izango ditu Monikak: Martin Arregi, Etxebide zerbitzuko teknikaria; Jose Antonio Etxeberria, Hirigintza zinegotzia Bergarako Udalean; Jesus Markaide, Deba Garaia inbiliarariako arduraduna Bergaran; eta Jabi Rodriguez, Denontzat taldeko kidea.

ikustekoak!



Hamaika Magazin

Osasuna, bidaiak, artea...
Eguena, 21:30.



Eta Hamaika Magazinen...

Hile guztian zehar Hamaika Magazinen parte hartu dutenen artean, kamara zotz.



Gatza eta berakatza

Goiz-alde-ko Leire Olea.
Astelehenetik eguakitzera, 13:40.



Goienasport

Asteburuko kirolek eman duten dena.
Astelehena, 21:30.



Berriak

Maidar Osaren eskutik, eguneko albisteak.
Astelehenetik eguakitzera, 20:00, 20:30 eta 21:00.



Epaitegiko eskolan, 1975

Goiko argazkia atera zenetik 25 urte bete dira aurten, 1975. urtekoa baita. Bertan agertzen direnek orduko Epaitegiko Eskola Nazionalean ikasten zuten eta erretratuia 5. maila egiten ari zirenekoa da. Jaso dugun informazioaren arabera, Don Ernesto izeneko irakaslea izan zuten laugarren eta bosgarren mailan. Erretratuko "mutikoe" 36-38 urte bitartean dituzte gaur egun. Garai hartan, klase bakoitzean, gaur baino ikasle gehiago izaten ziren eta horren adibide aste honetako erretratu zaharra dugu, ia 40 lagun ari baitziren gela berean elkarrekin ikasten. Horra hor beraien izenak, ezkerretik eskumara:

Goian: Juan Migel Agirreolea, Jose Irazabalbeitia, Sabas Igartua, Jose Luis Mengual,

Elias, Lucio Fernandez de Retana, Juan Carlos Marquez "Maceto", Miguel Gimbert, Roberto Zurro, Bigen Aiaitui eta Peli Narbaiza.

Erdian: Iñigo Sainz, Jose Luis Urtzelai, Paco Mihi, Carlos Ugalde, Imanol Fernandez, Jose Diez Alvarez, Martin Arriaran "Marlon", Alberto Sotil, Uribesalgo, Alberto Viana, Manolo Conde eta Azkarraga.

Jarrita: Carlos Gorrotxategi, Patxi Puertas, Martinez Orellana, Silva, Rafa Moñux, Jose Ignacio Perez, Juan Mari Cerdeira, Iñigo Laskurain, Fernando Sanchez, Angel Jimenez, Jesus Angel Gardoki, Garcia Osuna, Jaime Garcia eta Patxi Miguez.

Argazkia: Peli Narbaiza

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



zumelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

**Etxean bezain gustura,
inon ez dituzu ikusiko.**

DVD VHS

IRALA
VIDEOMATIC Plus Bideoak

Kruz Gallastegi 7. Telefonoa: 943 76 21 81. Faxa: 943 76 73 33. E-maila: video_irala@jet.es

ARAMBURU
H O R T Z
K L I N I K A



Telesforo Aranzadi 1, behea.
943 76 02 46. BERGARA



Zabaldu berria



GUIPUZCOANA

EURO EXPRESS

BERGARA

Tel.: 943 76 36 42

Faxa: 943 76 54 25

San Juan auzoa z/g
20570 Bergara

PAKETERIA ZERBITZU
EGUNEROKOA

• *Europako
Elkartea*

+

• *Suitza*

• *Norvegia*

• *Polonia*

• *Hungaria eta*

• *Txekiar Errepublik*

Deutsche Post  World Net

MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



www.guipuzcoana.com